

# Jai giroa lehertuko da gaur Durangon

Gaur iluntzean hasiko dira sanfaustoak Durangon. Urriaren 20ra bitartean, kulturaz eta entretenimenduz beteko dira herriko kale eta bazterrak / 4



## PANTAILETATIK BURUA ALTXATZEA HELBURU

Durangaldeko Altxa Burua sareak pantailen erabilera osasuntsua sustatu gura du. Sinadura bilketa hasi dute Hezkuntza Sailak sakelako erabilera arautu dezan ikastetxeetan / 2-3

Naia Olea eta Andrea Aginagalde, Durangoko eta Elorrioko Altxa Burua sareko kideak.

**Iurretako dantzariak  
Urrijena ospatuko  
dute zapatuan, egun  
osoko egitarauagaz / 8**

**Manga, anime, eta  
cosplay uztartzen  
dituen Mangamore  
jaialdia egingo dute  
asteburuan / 13**

HOME SCHMIDT HOME  
SUKALDEAK ETA ETXeko ALTZARIAK

Urriaren 1etik 31ra  
**URTEURRENEKO  
ESKAINTZAK**

**%20ko DESKONTUA\* altzarietan**

Abadiño

www.homedesign.schmidt

\*\* ikusi baldintzak zure Schmidt saltzalearekin parte hartzen duten dendetan



# "Pantailen erabilera osasuntsua behar dugu"

**NAIA OLEA ETA ANDREA AGINAGALDE** ALTXA BURUA

Altxa Burua teknologia berrien erabilera egokia sustatzea helburu duen sarea da. Olea Durangoko Altxa Burua plataformako kidea da. Aginagalde, Elorriokoa

**Ekaitz Herrera** PANTAILAK

Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako guraso talde batek hasi zuen bidea, 2019an, seme-alaben eta pantailen erabilera gazteak kezkatuta. Orain hile batzuk, Gipuzkoako hainbat herritako gurasoek Altxa Burua sarea sortu zuten, seme-alabei Internetarako sarbidea duten gailuak ematea atzeratzeko helburuz eta helduak zein nerabeak tresna digitalen erabilera egokian trebatzeko asmoz. Eta, oraintsu, mugimenduak beste pauso bat eman du Gipuzkoako mugak atzean utzi eta kontzientzia gainerako herrialdeetara zabalduta. Adibidez, Durangon eta Elorrioren ere osatu dituzte Altxa Buruaren aterkipeko taldeak, eta beste hainbat udalerritan ere sortzen hasi dira; Mallabian, Izurtzan, Iurretan eta Mañarian, besteak beste.

**Altxa Buruak sinadura bilteta bat hasi du Eusko Jaurlaritzari sakelako erabilera ikastetxeetan debekatzea eskatzeko. Zer da mugimenduak eskatzen duena?**

**Naia Olea:** Araudi bat eskatzen dugu, marko legal bat, eskolak mugikorrik bako arnagune izan daitezkeen. Izan ere, sakelako arazo ugari sortzen dute ikastetxeetan. Gatazka iturri izaten dira, irakasleek polizia lana egin



Naia Olea (Durangoko Altxa Burua) eta Andrea Aginagalde (Elorrioko Altxa Burua).

behar izaten dute, ikasleen artean hartu-emanak ahultzen dira, ziberjazarpena dago, arretarako gaitasuna murrizten da, lo arazoak ekartzen ditu... eta araudi batek horri guzti horri aurre egiten lagunduko liguke. Sinadurekin batera, Hezkuntza Sailera gutunak bidaltzen gabiltza. Denok babestuko gaituen marko legal bat eskatzen dugu, ulergarria eta ziurra dena. Edozelan ere, argi utzi gura dugu honako hau ez dela teknologiararen kontrako jarrera bat. Teknologiararen erabilera osasuntsu eta seguru baten aldeko jarrera

da gurea. Ez dugu inor epaitzen. Hau guzti hau denoi eragiten digun kontua dela uste dugu.

**Andrea Aginagalde:** Eusko Jaurlaritzak ikastetxeen eskura utzi zuen mugikorren erabilera debekatzeko aukera. Eta hor ikastetxe bakoitzak bere irizpidea izan dezake, batean bai, bestean ez. Horregaitik, goitik etorritako araudi orokor bat lagungarria izan daiteke guztiok, ikastetxe eta herri guztiok, irizpide zehatzak izan ditzagun.

**Gurasoak zarete. Zuen begiz ikusten duzue mugikorraren erabilerak**

**nerabeengan izaten duen eragina.**

**N.O.:** Adingabeak ez dira helduak, eta esku artean dutena oso teknologia potentea da. Jasotzen dituzten edukiak ez dira egokiak haien adinerako, eta kontuan hartu behar da horiek guztiak garapenean dagoen burmuin batek jasotzen dituela. Hor datoz hartu-emanen loturiko arazoak, adibidez. Pantaila batek komunitate sentsazio faltsua ematen du.

**A.A.:** Beste kezka iturri handi bat jazarpena da. Adibidez, iaz Elorrioren egindako formakuntza saio batzuetan, honako datu hau ondorioztatu genuen: DBH1 mailako ikasleen %75ek pantaila bidezko jazarpen kasuren baten berri zeukan. Izan ere, askotan, hausnartu barik partekatzen da edukia sarean, batez ere nerabezaroan, eta partekatze hori modu oldarkor batean egiteko arriskua dago. Orain urte batzuk, lekuz kanpoko zerbait egiten bagenuen, kontua etxean geratzen zen. Baina gaur egun irudiak azkar zabaltzen dira eta luzaroan egon daitezke Interneten eskuragarri. Eta horrek guzti horrek eragina izan dezake irudiotan ageri denaren izen onean eta pribatutasunean.

**Altxa Buruak helduen formakuntzan ere ipini gura du fokua.**

**A.A.:** Bai. Guraso garenok ere formakuntza handia behar dugu. Mugikorraren eta pantailaren erabilera arrapaladan heldu zaigu azken 20 urteotan, eta joko kanpo harrapatu gaitu. Autoko gidabaimena bai, badugu. Baina iruditzen zait pantailen erabilera gurasoek ez dugula gidabaimenik lortu. Eta horixe behar dugu lehenengo. Hau da, formakuntza on bat behar dugu lehenengo, gero gure seme-alaben bidelagun eta eredu izateko. Izan

ere, gaur egun identitate digitala dugu, sarean gaude, eta datu horiek guztiak, zure lokalizazioa, argazkiak, partekatzen duzun guztia, datu enpresen erregistroetan biltegitratzen dira, gero horiek guztiak modu batera edo bestera saltzeko.

**N.O.:** Teknologiararen erabiltzaile gara, baina ez dugu inork erabili gaitzan gura. Hain zuzen ere, zein da gure datuen erabilerari etekina ateratzen diona?

**Ikastetxeetan sakelakoak izan behar duen lekuri buruz gabiltza, baina, gero, hori guzti hori zelan eramaten da etxera?**

**N.O.:** Adibidez, mugikorren apar-kaleku bat sortu dezakegu. Erabilera ordutegia arautu dezakegu, otorduetan ezin erabiltzea, eta halakoak. Beste ariketa interesgarri bat norbere mugikorreko erabilera orduerareparatzea izan daiteke. Azkenik, seme-alabei Internetarako sarbidea duen telefono bat ematen diegunean, seme-alabekin erabilera kontratu bat egin dezakegu. Alde biko kontratua, arau sendoekin. **Durangoko edo Elorrioko Altxa Burua taldeagaz hartu-emanetan ipini gura duenak zer egin dezake?**

**N.O.:** Badago Bizkai osoari begirako helbide elektronikoa bat: [altxaburuabizkaia@gmail.com](mailto:altxaburuabizkaia@gmail.com). Durangoren kasuan, guraso bakoitzak bere ikastetxean galdetu dezake.

**A.A.:** Elorrioren kasuan, posta elektronikoa hau dugu: [altzauburu@gmail.com](mailto:altzauburu@gmail.com)

**"GURASOOK ERE FORMAKUNTZA BEHAR DUGU. PANTAILAK ATOAN ETORRI DIRA AZKEN 20 URTEOTAN"**

## Otxandioko guraso batzuk Altxa Burua taldea sustatzen dabiltza

Pantailen erabilera arduraturiko guraso talde batek ZEOS programara batu gura ditu herriko eragileak

**Ekaitz Herrera** PANTAILAK

Otxandioko guraso talde bat Altxa Buruaren aterkipeko plataforma sustatzen hasi da herrian. Oraingoz ez dute Durangoko eta Elorrioko taldeen pareko antolakuntza trinkoa lortu,

baina apurka-apurka bidea egiten hasi dira. Helburu bat, behintzat, badute zerumugan: herriko eragileak ZEOS proiektura batzea gura dute. Hau da, eskola komunitatea, gurasoak eta udala inplikatu gura dituzte

sakelakoan eta pantailen erabilerari buruz hausnartzeko eta trebatzeko. Aurreratu dutenez, Telmo Lazkanoren eta Maitane Ormazabalaren berbaldi bat antolatu gura dute.

Otxandioko Altxa Burua sustatzen dabilen gurasoetarikoa bat Larraitz Madariaga da. "Internetek era askotako kalteak sortzen ditu. Adikzioak, jokoak, edari energetikoak... Itzela da ohartzea tresna bakar batek zenbat kalte desberdin eragin ditzakeen. Otxandioko irakasleek



Otxandioko herrigunea.

eurek ere esan izan digute Haur Hezkuntzan ere hasi direla eragina igartzen. Esaterako, hizkuntza trebeziari loturiko arazoak identifikatu dituzte", azaldu du Madariagak. Edozelan ere, berak argi du: "Teknologia izugarri erabilgarria izan daiteke, onuragarria, baina beti ere modu osasungarrian erabiltzen bada".

Otxandioko taldeagaz hartu-emanetan ipini gura duenak [altxaburu.otxandio@gmail.com](mailto:altxaburu.otxandio@gmail.com) helbidea du eskuragarri.

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Altxa Burua mugimendua geroago eta indar handiagoa hartzen dabil Euskal Herrian. Sinadura bilketa hasi dute Eusko Jaurlaritzari eskaera zehatzak egiteko. Telmo Lazkano dinamika horretako kidea izateaz gainera, 'Nerabeen garrasia' liburuaren egilea da, Maitane Ormazabalagaz batera. Gainera, ZEOS programaren bultzatzailetariko bat da.

**Altxa Burua mugimendua hazten dabil, pantailen inguruan hausnartzeko beharizan bat dagoen seinale.**

Bai, azken urteetan bizitasun handia hartu duen mugimendua da eta gero eta handiagoa bihurtzen ari da azkenaldian.

**Sinadura bilketa batezaz ipini duzue martxan kanpaina, ikastetxeetan mugikorrek debekatzeko legea eskatzeko. Zergaitik da hain garrantzitsua sinadura bilketa hau?**

Alde batetik, mugikorrek eskoletatik kanpo utzi direnean ebidentzia zientifikoak erakutsi digu hobekuntza garrantzitsuak gertatu direla oso maila inportanteetan. Adibidez, irakasleen eta ikasleen eginbeharrak hobetu dira, arreta gaitasuna hobetu da, ziberjazarpenaren aurrean hobekuntzak izan dira, mugikorrarekiko dependentzia jaitsi da, PISA informeeetan hobekuntzak izan dira, jarduera fisikoa areagotu egin da eta ikasleen hartu-emanak sustatu egin dira. Bestetik, txanponaren beste aldean argia jartzen badugu, konturatuko gara mugikorrek ez duela hobekuntzarik eragin. Hau da, galdera izango balitz: "Azken hamarkadetan mugikorrek eskoletan izateak hezkuntza sistema hobetu du?". Hor ez dugu ebidentzia zientifiko sendorik aurkituko baieztapen hori egiteko. Beraz, ikasleen eskubide bat bermatzera dator: ikasteko prozesua ahalik eta hoberena izatea. Gainera, ikastetxeetan, ikasleek gainera, bertako profesionalak ere badaude, irakasleak eta zuzendaritza taldea. Ikuspegi hau euren ere zabaldu behar dugu. Azken batean, gailu honek jazarpena ekarri du, ez bakarrik ikasleen artean, baita ikasleek irakasleei egindakoa ere. Noski, eskolari ez zaio eskumenik ematen ikastetxera gailurik ez sartzeko. Baina, sartzen baldin bada, eskola da erantzulea. Hor kontraesan handia dago.

# "Mugikorrek eskoletatik kanpo utzita, hobekuntzak gertatzen dira"

TELMO LAZKANO ALTXA BURUA MUGIMENDUKO KIDEA

Telmo Lazkanok mugikorren erabilerak ume eta nerabeengan duen eragina aztertu du. Argi du ikastetxeak mugikorrik bako arnaguneak izan beharko liratekeela



Telmo Lazkano.

**Alde horretatik, irakasleenganako jazarpen kasuak gertatu dira?**

Bai, eta ikasle batek irakasle bati ikasgela barruan egindako ziberjazarpenaren ondorioak zuzenean ikastetxe horrek ordaintzen ditu auzitara joanez gero. Donostiako San Patricio eskolan gertatutakoa horren adibide da. DBH2ko ikasle batek ziberjazarpena egin zion irakasle bati eta auzitara joan ziren. Azkenean, ikasle horren tutore legalen eta eskolaren artean 24.000 euro ordaindu behar izan zizkieten irakasleari. Beraz, berme juridiko bat behar dugu eskolak ahalmena izan dezan

**"SEME-ALABEI MUGIKORRA EMATEKO ADINA ATZERATZEA FUNTSEZKOA DA"**

gailua bere esparrutik kanpo uzteko. Berme hori Hezkuntza Sailetik etorri beharko litzateke. Bestalde, ezin da eskola batean modu batera jokatu eta beste batean beste modu batera. Segurtasun falta juridikoa esaten zaio horri. Horregatik, nazioartean eta Erkidego Autonomoetan, UNESCOk berak adierazten duen moduan, eskolak mugikorrrik gabeko arnagune izan behar dira. Hori guztia aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzari legea garatzea eskatzen diogu. Esko-

lek euren araudia izan arren, geroago legokeen lege hori beharko lukete babes juridikoa izateko.

**Sinadura bilketaren beste eskaeratariko bat gai honen inguruko kontzientziarioa bultzatzea da.**

Ebidentziak erabakigarriak dira. Jakin badakigu ez direla produktu egokiak nerabezaro osasuntsu bat izateko. Osasun publikoko arazo baten aurrean gaude eta arazo horri gizarte modura erantzutea eskatzen da, ez soilik familien aldetik. Horrek instituzioak inplikatzeko ditu, kasu honetan Osasun Saila. Gai honi benetako garrantzia emateko eskatzen diogu, eta kontzientziario kanpaina bat martxan jartzeko.

**Ume edo gazte bati mugikorra emateko adina erabakigarria da, adin hori ahalik eta gehien atzeratzea.**

Gai honetan hainbat aldagai dago: edukien kontsumoa, denbora kontsumoa eta adina. Internetera sarbidea duen gailu bat zenbat eta lehenago eman, ume horrek buruko gaixotasunak eta arazo konduktualak izateko arrisku gehiago du. Hainbat txostenek, gure homologo frantsesek Frantziako gobernuari emandako diktamenak eta lan egiten dutan aditu batzordean laster publiko egingo den txostenak ere halaxe adierazten dute. Adina atzeratzea funtsezkoa da; zenbat eta lehenago eman, buruko gaixotasunak eta arazo konduktualak areagotu egiten dira ia esponenzialki. Adinean atzeratzeak ez du harreman osasuntsua ekarriko, albo ondorio nabarmenak ekarriko ditu. Horregatik, harreman osasuntsu bat izateko, ezagutza eta heziketa behar ditugu. Beraz, garrantzitsua da irakasleekin eta gurasoekin lan egitea.

**ZEOS programa ipini duzu martxan. Guraso, irakasle eta ikasleei formakuntza ematen diezue, erronka batezaz amaitzeko: ikasleak euren borondatez astebete mugikorrik barik egoteko aukera. Zelako esperientzia izaten ari da?**

Ikasleek ezagutza bat eta iritzi kritiko bat eraikitzea da planteamendua. Kontziente dira gizartean arazo bat dagoela, eta aktibista bihurtzen dira arazo horri aurre egiteko. Kurutzian martxan jarri genuen, eta beste ikastetxe batzuetan ere bai. Aurretik, beste 10 ikastetxetan ere landuko dugu ZEOS programa.



# Gaur jai giroa lehertuko da Durangoko kaleetan

Vanessa Goikoetxeak udaletxeko balkoitik jaurtiriko txupinazoagaz hasiko dituzte sanfaustoak; txosnagunean, Durangoko euskalgintzako eragileek izango dute herriko jaietako ondoetorria emateko ardura. Jai egarria asetzeko, 160 ekitaldi antolatu dituzte

**Aitziber Basauri** DURANGO

Dena prest dago Durangon sanfaustoei harrera egiteko. Vanessa Goikoetxeak udaletxeko balkoitik jaurtiriko txupinazoagaz egingo du jai giroak eztanda, aurreneko eztanda. Izan ere, ordutebe geroago, euskalgintzako eragileek —EHE, Durangoko AEK, Ibaizabal ikastola eta Berbaro elkarteak—jaurtiriko txupinazoa lehertuko da txosnagunean. Gaur hasi eta urriaren 20ra bitartean, kulturaz eta entretenimenduz beteko dira Durangoko kale eta bazterrak. Patxikotxuren eta Pantxikereren begiradapean hasiko diren sanfaustoetan, 160 ekitaldi baino



lazio txupinazoa.

gehiago prestatu dituzte jai egarria asetzeko. Ekintzetariko asko auzoetan izango dira, herriko erdigunean barik.

**Berdintasun protokoloa**

Udalak berdintasun protokoloa bat ipini du sanfaustoetarako, "ingurune segurua bermatzeko, diskriminaziorik eta erasorik bakoa". Eraso matxisten aurkako arreta guneak egongo dira, eta telefono bidezko laguntza zerbitzua eskainiko da. Gune Morea ipiniko dute Landako Gunean, gaurtik urriaren 13ra eta urriaren 18an eta 19an; 22:30etik 04:30era egongo da aktibo. Gainera, arreta psikologikoko zerbitzua ere egongo da, 747 459 584 telefono zenbakiaren bitartez. Urriaren 11tik 14ra eta 18tik 20ra egongo da erabilgarri. Bestetik, Ertzaintzaren zein udaltzaingoa ere jo daitekeela ohartarazi dute. Udaltzainen patruila kopurua gehituko dela jakinarazi dute, eta jaiak irauten duten bitartean, garbiketaren zerbitzua ere indartuko dute. Ekitaldi jendetsuetan, arreta berezia ipiniko dute edukierari dagokionez.

## Txosnek ixte ordutegiak salatu dituzte

Udalak txosnagunea 04:30ean ixtera "behartu" gura duela salatu du irabazi asmorik bako 14 eragilek osaturiko Txosna Batzordeak. "Inposatu" gura zaien ordutegia "aitzakia tekniko eta juridikoekin mozturroturiko erabaki politikoa" dela diote. Ordutegi "lotsagarriak" direla diote, "luzatu beharreak", euren iritziz eragile bakoitzak urte osoko ekarpena egiten dielako durangarrei, eta txosnak eragile askoren finantziazio iturri bakarra direlako. Gainera, behin txosnak itxita, "parrandan jarraitzeko ganorazko espazioen faltak egoera bionto eta arriskutsuak sortzeko aukera handitzen" dutela uste dute. Ekintzetan parte hartzea deitu dute.

# "Gaztetxea badatorrela erakutsiko dugu zapatuan"

**URKO PAGONABARRAGA, KATTALIN ZUGAZABEITIA ETA ANDER SARRIUGARTE**  
Kaleetik Gaztetxera dinamikaren eskutik, gazte mugimendu antolatua sortu dute

**A.B. DURANGO**

Urko Pagonabarraga, Kattalin Zugazabeitia eta Ander Sarriugarte Kaleetik Gaztetxera dinamikako kideak dira. Hirurek argi dute Durangok gaztetxea behar duela.

**2022an Sorginola bota zutenetik, gazteentzako espazio baten falta nabarmena da Durangon.**

**Ander Sarriugarte:** Hala da. Gazteok ditugun interes eta kezka guztiekin lotuta ikusten da espazio baten falta. Asteburua heltzean, Goienkalera joan eta dena da prezio igoera, ordutegi murrizak... Hartu-emanak izateko moduetan eta gaueko aisialdian, aukerak beti dira berdinak. Bestalde, Sorginolagaz izandako loraldiaren ondoren, mugimendu artistikoa geldirik dago. Orduan



Pagonabarraga, Zugazabeitia eta Sarriugarte.

jaiotako musika taldeez gainera ez da berririk sortu. Eta gazteek ez dute arte adierazpenerako espaziorik.

**Urko Pagonabarraga:** Politikoki antolatuta dauden gazteen artean ere igartzen da. Asanblada modura askotariko borroka eta politikak atera gura ditugu aurrera, baina ez dugu politika horiek aurrera ateratzeko lekurik. **Sorginola eraistea erabaki zenean, alternatiba bat eskatu zen gazte mugimendutik. Eman da pausorik?**

**Kattalin Zugazabeitia:** Orduan gobernuak pseudonegoziaketa edo negoziazio-mahaia zabaldu zuen. Faltsukeria izan zen, falaziak saldu zizkiguten, eta gazteen aldarriei ez zitzaizkien irtenbiderik eman. Gazte Asanblada ez zen egoerari buelta emateko gai izan. Derrotismo politikoko ziklo batean sartu ginela esan daiteke. Baina orain lortu dugu horri buelta ematea.

**U.P.:** Eguneko gobernu taldeak ere ez du inolako interesik agertu gugaz hartu-emanetan ipintzeko. Antolaturiko egitarau, dinamika eta ekitaldien aurrean, trabak eta oztopoak baino ez dituzte ipini.

**Izan duzue hartu-emanik udalagaz?**

**K.Z.:** Oraingoz ez dugu uste beharrezkoa denik negoziazio mahai batera deitzea. Gazteak gaztetxe baten premiazotasunaren atzean antolatzea, horixe da erdigunean ipini gura dugun aldarria.

**U.P.:** Izan zen negoziazio prozesu hartatik ikasi genuen dagokion udal gobernuak egindako promesetatik aparte gaztetxearen aldeko mugimendu bat sortu behar dugula. Eta mugimendu horrek behar diren pausoak emango ditu gaztetxea sortzeko. Udal gobernuaren borondateari itxaroten egon barik antolatu behar gara. Begira zer gertatu den Zornotzan. Administrazio horrek berak gazteak hango gaztetxetik aterarazi zituen.

**Sanfaustoetan gaztetxe baten beharria azalaraziko duzue.**

**K.Z.:** Aurten Gazte Eguna aldarritz betetzen ahaleginduko gara. Gainera, DJ maratonia, moztro desfilea... izango ditugu. Gaztetxea badatorrela erakutsiko dugu.

**U.P.:** Proiektu serio bat dugula esan daiteke, sanfaustoak amaituta bere bideari jarraituko diena. Jende asko dago dinamikan.



## EHEk deialdia egin du "hizkuntza larrialdiari" aurre egiteko

EHEk manifestazio nazionala egitera deitu du; Durangon izango da, abenduaren 7an, Landako Gunetik hasita

**A.B. DURANGO**

"Hizkuntza larrialdiaren aurrean", Euskal Herrian Euskarazek (EHE) manifestazio nazionala egitera deitu du. Durangon izango da, abenduaren 7an. Landako Gunetik hasiko da, 18:00etan. "Euskararen Errepublikara eraikitzeke premia inoiz baino agerikoagoa" dela nabarmendu dute EHEko kideek, eta euskararen aurkako "oldarraldiaz" ohartarazi dute.

"Euskarak eta euskaldunok urteak daramatzagu ez atzera ez aurrera. Euskal Herri eus-

kalduna dugu helmuga, gure hizkuntza eta gure komunitatea osasuntsu ikusi gura ditugu, baina hortik urrun gaude oraindino. Jada ez da ikuspegi kontua, sendo frogatuta dago hori, eta kontzientzia hartu behar dugu: gure hizkuntza larrialdi egoeran dago", azaldu dute EHEko kideek.

**"Oldarraldia"**

"Euskararen aurkako erasoaldi bat bizi dugu, oldarraldi bat, epaitegietatik, komunikabide nagusien lerroetatik, eta hain-

bat sindikatu eta alderdiren diskurtsoetatik. Aurrera egingo dako bidea atzerarazi gura dute", ohartarazi du EHEk. Horren aurrean, "beharrezkoa da Euskararen Errepublika eraikitzea". EHEk herri euskaldun eta burujabe bat aldarrikatu du.

Faxismoaren aurkako eta askatasunaren aldeko "fronte euskaltzalea" ikusarazteko egingo dute manifestazioa, "hizkuntza larrialdiaren aurrean Euskararen Errepublika eraikitzea beharrezkoa dela aldarrikatzeko".

**"EUSKARAREN ERREPUBLIKA ERAIKITZEKO PREMIA INOIZ BAINO AGERIKOAGO DA"**



Manifestazioan parte hartzera deitzeko Durangon egindako agerraldia.

## Segurtasun Sailak Durangoko ertzain etxea berrituko du

Udalak eta Jaurlaritzako Segurtasun Sailak lankidetzan "indartu" dute, "segurtasuna eta ongizatea hobetzeko"

**A.B. DURANGO**

Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzan "indartu" dute segurtasun arloan. Mireia Elkoroiribe alkatea eta Bingen Zupiria Segurtasun sailburua Durangon batzartu dira, administrazio bien arteko lankidetzan aurrerapausoak emateko. Batzar horretan, akordio bi lotu dituzte "durangarren segurtasuna eta ongizatea hobetzeko". Batetik, Ertzaintzaren eta Durangoko udaltzaingoaren arteko lankidetzan protokoloa eguneratzea adostu dute, 2021etik



Zupiria udal ordezkariekin.

berrikusi barik zegoena. Eraikunde bien arteko komunikazioa eta koordinazioa "indartzea" dute helburu, herritarren segurtasunari eragiten dion edozein egoeraren aurrean erantzun "eraginkorragoa" eta "azkarragoa" bermatzeko. Bestetik, Durangoko ertzain etxea berrituko dutela iragarri dute.

Jaurlaritzako Segurtasun Sailak bultzaturiko Azpiegiturak Berritzeko Planaren barruan berrituko dute ertzain etxea. Zupiriaren berbetan, Ertzaintzak instalazio "aurreratuagoak" izango ditu, "bere eginkizunak hobeto betetzeko eta herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko". Josune Escota Segurtasun Saileko Antolakuntza buruak eta Igor Zenarruzabeitia udaltzainburuak ere parte hartu dute batzarrean.

## Otxandioko plazak Erdi Aroko azoka baten itxura hartuko du

**A.B. OTXANDIO**

Otxandioko plaza itxuraldatuta egongo da urriaren 14tik 25era bitartean. Plazak eta inguru guztiak Erdi Aroko azoka baten itxura hartuko dute, bertan egingo dituzten filmazio lan baten eraginez. Udalak azaldu duenez, Atresmedia Cine ekoiztetxeak sustaturiko *Sin Cobertura* filmeko pasarte batzuk grabatuko dituzte datozen aste bietan. Udalak grabazio lan horietarako beharrezko baimenak eman ditu.

Otxandiarrek eta egun horietan bertaratzen diren bisitariak aukera izango dute film baten grabazio lanak bertatik bertara ezagutzeko.

## Zaldibarko ekialdeko lurrak ezagutzeko bisita, urriaren 27an

**Ekaitz Herrera ZALDIBAR**

Zaldibarko Udalak eta Gerediaga elkarteak ibilaldia antolatu dute urriaren 27rako, herriko ekialdeko bazterrek ezagutzeko. Hain zuzen ere, Goierri, Eitzaga, Sallabente eta Olarreaga auzoak bisitatuko dituzte, auzotako hainbat ezaugarri ezagutzeko; besteak beste, baserriak, errota, metalurgia, aduana kontuak, mikelteak, Aixolako urtegia, trenbidea, autobidea, zabortegia, eta Ermuko eta Eibarko euskara.

Ibilaldia Zaldibarko plazatik hasiko dute, 10:30ean. Zazpi kilometroko ibilbidean, bisitariak oinez ezagutuko dituzte udalerriko istorioak. Azalpenak euskaraz izango dira.



**PYM'S IDIOMAS**  
SINCE 1974

**INGELES IKASTARROAK**

**IRAKASLE NATIBOAK  
MATRIKULA DOAN**

We prepare for



English Qualifications

pyms@pymsidiomas.com  
www.pymsidiomas.com

946 815 677 / 623 144 980    Murveta Tome SA, beheko  
48100 Durango

# GAER

**DESINFEKZIOAK**









**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

**LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...**

**Iturriza, 42 - 2 ez. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ**



# "Osabarentzat bizitza zen Billiken, liburu-lubaki bat"

Eduardo Larrea hil da, Zornotzako erdigunean dagoen Billiken liburu dendako azken dendaria. Bere heriotzagaz batera, herriko denda historiko batek azken hatsa eman du. Familiako kideek eta gertukoek dendako istorioak kontatu dizkiote ANBOTOri

## Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Badira herritarren iruditegi kolektiboan miresmen bezain-beste sinpatia sortzen duten herritarrak. Eta, zalantzarik barik, zornotzarren artean Eduardo Larrea dendaria izan da horietariko bat. Larrea martitzen hil zen, eta beragaz batera amatatu zen Zornotzako erdigunean dagoen Billiken paper eta liburu denda mitikoa. Izan ere, gutxi izango dira Eduardorenean eta Kontxirenean noiz edo noiz libururik, aldizkaririk, eskola materialik, aterkirik edo egunkaririk erosi ez duten zornotzarrik. Xarma eta magia darion denda historiko baten kontakizuna da honako hau, Eduardoren, Kontxiren eta Billiken dendaren familiako kideek eta gertukoek ANBOTOri kontatua.

1973-1974an hasi zen dena, Eduardo eta Kontxi Larrea neba-arrebek liburu denda zabaltea pentsatu zutenean. Ez zuten negozioa hutsetik sortu,



Eduardo Larrea 'Billiken' dendaren barruan. LARREA FAMILIA

liburu denda baino lehenago kafetegi bat egon zen-eta bertan, El Café de Teles mudura eza gutzen zen Ibaizabal taberna. Eduardoren eta Kontxiren gurusoek izan zuten kafetegiko martxaren ardura, Angelak eta

Telesforok, gerraostetik 70eko hamarkadara arte. Baina 70eko hamarkadan, alkoholdu botilak liburuengaitik aldatzea erabaki zuten familian. Eta Eduardok eta Kontxik denda zabaldu zuten.

Ondo egindako lanari eskerrak, Billiken zeozer berezia izan da Zornotzan. Denda bat baino gehiago, herritarren eta belaunaldien arteko topagune izan da. "Elkar zaintzarako eta laguntzarako gune ere bai". Eduardok, behintzat, halantxik bizi izan du. "Osabarentzat denda zen bere bizitza. Liburuz osaturiko lubakia zen berarentzat. Eduardo eta Billiken, Billiken eta Eduardo. Halantxik izan da azken egunera arte", azaldu dute Eduardoren familiako kideek. Hori dela eta, eskerrak eman dizkiete Eduardoren zein Kontxiren bueltan sortu izan den zaintza eta komunitate sareari.

Gainera, herriko erdigunean, Sabino Arana kalean, Patataren pare-parean kokatuta, herriko gorabehera guztien lekuko isila izan da denda. Makina bat ospakizunen, kirol probaren eta mobilizazio sozialen lekuko mutua izan da Billiken. Adibidez, familiako kideek ondo gogoan dute Zelaieta parkeko aparkalekuaren kontrako mobilizazioetan Billikenek jokaturiko rola. 2.000 sinadura batu zituzten dendan, parkeko kioskoa, gutxienez, bota ez zedin eskatzeko. Eta hara non kioskoa oraindino ere zutik dagoen.

## Zornotzarren zaindari

Eduardok eta Kontxik oso hartu-eman estua izan dute herritarrekin. Amaia Astobiza idazle eta itzultzaile zornotzarrik,

adibidez, gertu-gertutik bizi izan du hartu-eman hori, txiki-txikitatik. "Denerik saltzen zuten, ez bakarrik liburuak eta paper-gauzak. Gogoan dut garai batean lotarako zakuak ere ekarri zituztela, herriko umeok udalekuetara joaten hasi gine-nean", gogoratu du. "Liburu bat ekartzeko eskatzen zenion Eduardori, eta izenburua paper-txatal batean idazten zuen, eta pentsatzen zenuen: oraingoan bai, galdu edo ahaztu egingo zaio, eta ez dit ekarriko. Eta handik gutxira, denda ingurutik pasatzean, txistu egiten zizun eta eskaturiko liburua eman", azaldu du Astobizak. Txakurzalea izanik, txakurrek ere estimu handitan zuten dendaria. Itzultzaile zornotzarren berbetan, "inguruko txakur guztiak Eduardoren lagunak ziren, ogia, gozokiak eta laztanak ematen zizkielako".

Billiken dendan argiak betiko amatatu dira, baina Eduardo, Kontxi zein Larrea familiako kideekiko oroimenak hor jarraituko du, Zornotzako herriaren erdigunean eta Zornotzako herritar bakoitzaren bihotzean.

## "DENDA 70EKO HAMARKADAN ZABALDU ZUTEN. KAFETEGIA IZAN ZEN LEHENAGO"

## Zientziaren astea egingo dute Berrizen haur eta gazteentzat

Umerri eskola aktiboak antolatu du ekintza sorta, Berrizko Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzagaz

### A. M. BERRIZ

Herritarren artean kultura zientifikoa sustatzeko asmoz, Umerri eskola aktiboak Zientziaren Astea antolatu du beste urte batez. Urriaren 24tik 29ra bitartean, tailer bi eta sei berbaldi egingo dituzte. "Etorkizuneko gizartearen erronkei garapen zientifikoa eta teknologikoa jasagarrian oinarrituta heldu beharko zaie neurri handi batean", azaldu dute ohar baten bitartez. Berrizko Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntza dute egitasmoa antolatzeke.

Tailer bi emango dituzte, 8tik 14 urtera bitarteko gazteentzat; batean ilustrazio zientifikoa praktikatu dute, NorArte Visual Scienceren eskutik, eta bestea fisikako tailerra izango da. 50 minutuko txanda bi egingo dituzte. Berbaldiak Berrizko Kultur Etxean egingo dituzte (lehenengo institutuan egingo dute). Besteak beste, Santos Gonzalezek, Mireia Sainzek, Itziar Garatek eta Estitxu Txurrukak emango dituzte. Ekintzak doakoak izango dira. Inskripzioa 639 128 432 telefonoan egin daiteke.

## 'Belaunaldi artean' egitasmoak hamarkada bat beteko du

Egitasmoak nerabeak eta 50 urtetik gorako herritarrak ipintzen ditu hartu-emanetan; iaz 209 lagun batu ziren



'Belaunaldi artean' egitasmoaren saio bat. ELORRIKO UDALA

### A.B. ELORRIO

Nerabeak eta 50 urtetik gorako herritarrak hartu-emanetan ipintzen dituen 'Belaunaldi artean' programak hamarkada bat beteko du aurtien. Ibilbide "arrakastatsua" izan da orain arte egindakoa, udal arduradunek azaldu dutenez. Iaz 209 lagunek parte hartu zuten, DBHko 168 ikaslek eta 41 pertsona helduk. Elorrioko Udalak antolatu eta finantzaturiko egitasmoa da.


Sormening esperimintazio guneak gidatzen dituen proiektura batu gura dutenei begira, zenbait aurkezpen saio egingo dute urrian. Ikastetxeetako hurrengo aurkezpenak urriaren 16an, 17an eta 24an izango dira. Informazio gehiagorako 658 72 12 92 telefono zenbakira deitu daiteke, udal arduradunek jakinarazi dutenez.



# GREMIOEN GIDA

<p> <b>Zurgintza</b></p>	<p> <b>Zurgintza</b></p>	<p> <b>Iturgintza</b></p>	<p> <b>Iturgintza</b></p>
<p><b>leike</b> Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia</p> <p>NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK</p>  <p><a href="http://www.leike.eus">www.leike.eus</a> Antso Estegiz, 3 Durango Tlf: 94 681 72 29</p>	<p><b>ATERPE</b> KROTZALB EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK</p>  <p>Asler Abendibar 635 74 84 65 <a href="http://www.carpinteriaaterpe.com">www.carpinteriaaterpe.com</a></p>	<p> <b>Ubide</b> iturgintza</p> <p>Iturgintza, gasa eta berokuntza</p> <p>946 030 506 / 625 702 208 ubide@euskalnet.net 48200 DURANGO 188 PK.</p>	<p> <b>UNAI GARAY</b> ITURGINTZA BEROGINTZA GASA</p> <p>INSTALATZAILE BAIMENDUA</p> <p>659 673 790 unaigaray@yahoo.es</p>

<p> <b>Elektrizitatea</b></p>	<p> <b>Iturgintza</b></p>	<p> <b>Dekorazioa</b></p>
<p> <b>ELECTRICIDAD JON</b></p> <p>622 684 284 electricidadjon@outlook.es</p>	<p><b>Mallabiena</b></p> <p>M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.</p>  <p>Mallabiena industrigunea, 6 48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862 mallabiena@mallabiena.com</p>	<p><b>JAIO</b>barnizatuak</p> <p>Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu</p> <p>Eitua Industrialdea, 45 Garala A - BERRIZ Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421 info@jaiobarnizatuak.com www.jaiobarnizatuak.com</p>





# Iurretako dantzariak Urrijena ospatuko dute

Iurretako atzoko eta gaurko dantzariak Urrijenan elkartzen dira bost urterik behin. Zapatu honetan dute hitzordua, eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Aurten, 13-14 urteko gazteek osaturiko dantza talde bik debutatuko dute plazan

**Aitziber Basauri** IURRETA

Herri osoko dantzariak —atzokoak eta gaurkoak— batuko dira zapatuan Iurretan, bost urterik behin izaten duten hitzorduari hutsik egin barik. Dantzariak egun osoko egitaraua prestatu dute Urrijena ospatzeko. Herri osoko dantzariak batzen dituen eguna izaten da, "emozioz beteriko eguna", Unai Esturo dantzariak azaldu duenez.

Herrian zehar kalejira egin ondoren, dantza erakustaldia hasiko da plazan, 12:00etan. Alardeak hainbat belaunaldi batuko du; 18 taldek Dantzari Dantzako dantzari adierazgarrienak egingo dituzte, eta hiru taldek Gorulari Dantzak. 13-14 urteko gazteek osaturiko talde bi lehenengoz dantzatuko dira Urrijenan, eta plazaratuko den dantzari zaharrenak 75 urte ditu. Saioa Soka Dantzagaz amaituko da. Azken bost urteotan 65 urte egin dituzten edo egingo dituzten dantzariak omenduko dituzte zapa-



2019an ospatu zen azken Urrijenan ateratako familia argazkia. IURRETAKO DANTZARIAK

tuan. Baita 80 urtetik gora dituztenak ere. Horrez gainera, modu berezian gogoratuko dituzte Jon Irazabal (abuztuan hil zen) eta Juanito Gallastegi. Irazabalek hartu-eman estua izan zuen dantza taldeagaz, eta emandako laguntza eskertu gura diote. Ga-

llastegi Oromiñon eta Arriandi izan zen abade, eta dantza maisua ere bai.

Ekitaldiak amaituta, egun horretarako batuko diren 250 bat dantzariak Askondon bazkalduko dute. Ondoren, kantaldia eta dantzaldia egongo dira.

## Unidad Alavesa, Ezpalak eta Dupla Mallabiko Urriko Jaietan

Urriaren 25etik 27ra bitartean Urriko Jaiak ospatuko dituzte. Jai Batzordeak kontzertuen berri eman du



Unidad Alavesa.

**Maialen Zuazubiskar** MALLABIA

Urriaren 25etik 27ra bitartean, Mallabian Urriko Jaiak ospatuko dituzte, eta Jai Batzordeak bertan izango diren kontzertuen berri eman du azken egunotan sare sozialetan.

Urriaren 25ean, barikuan, Musikabia taldearen kontzertua egongo da herriko parkean, 20:15ean hasita. Eta honen ondoren, 21:30ean hasita, Aiama eta Beranduegi taldeen txanda izango da.

Zapatuan, urriak 27, hiru kontzertu egongo dira, 22:30ean hasita: Dupla, Unidad Alavesa eta Ezpalak.

Bestalde, Jai Batzordeko kideek jakinarazi dute kontzertuak karpa estali batean izango direla, eta gautxori autobusa ere egongo dela: Ondarroa-Mallabia-Ondarroa.

## Iurretako jaietan gertaturiko eraso matxistak salatu dituzte

Aste honetan biktimetarik batek salaketa bat erregistratu du Ertzaintzak Durangon duen komisarian

**A.M. / E.H.** IURRETA

Iurretako jaietako bigarren barikuan, urriak 5, eman zuten gertakarien berri, plazan egindako agerraldian. Baina ANBOTOk jakin ahal izan duenez, gutxienez biktimetarik batek salaketa ipini du Durangoko Ertzaintzaren komisarian. Erasoa Sexisten Kontrako Protokoloa plataformako kideek plazako oholtzan azaldu zuten, "ez da lehenengo aldia. Jai eremuan eta jai eremutik kanpora gizon bat nesken atzetik ibili zen, jarrerara baboso eta desatseginagaz. Ikutuak ere egon ziren tarteko". Egoera honen aurrean, besteak beste herriko mugimendu feministak, Jai Batzordeak, tabernariak eta udalak osaturiko plataformak erantzun irmoa eman du, eta elkarretaratzea egin zuten eguenean, hilak 10. "Jaietan gertatutakoa ez da kasu



Jaietan egindako protesta.

isolatu bat, ezin diogu garrantzia kendu". Era berean, "babesa eta elkartasuna" adierazi diete barikuan eraso jasan zuen emakumeari, eta baita "gizon horren jarrera desatsegin eta guztiz lekuz kanpokoak jasan behar izan dituzten denei".

## Garaiko kirol ekipamendua eraikitzeko lanak, martxan

Instalazioa frontoiaren eta bolatokiaren artean eraikiko dute. 2025eko maiatzean egongo da erabilgarri

**Ekaitz Herrera** GARAI

Hasi da atzera kontaketa. Garaiko kirol azpiegitura berria izango du laster herrigunean. Instalazioa 80 metro karratu zabal izango da eta frontoiko aldagelekin lotuko dute, kirol azpiegitura bien erabilera optimizatze aldera. Horrez gainera, biltegi txiki bat ipiniko dute, kirolarien eta herriko dantzarien materiala gordetzeko helburuz. Udalaren berbetan, kirol ekipamendu berria "aurrerapauso handia" izango da herritarrentzat; besteak beste, "kultur etxeko espazioa txiki geratu delako zahartze aktiboaren inguruko ikastaroak egiteko". "Herritarrek, nagusiek, eta gazteek bereziki, kirola Garain bertan egin ahal izateko beste aukera bat izango dute", nabarmendu du udalak. Ekipamendu berria eraikitzeko, Garaiko Udalak



Kiroldegiko obrak. GARAIKO UDALA

hainbat erakunderen laguntza jaso du. Bizkaiko Foru Aldundiak 187.353 euroko ekarpena egin du. Bestalde, Eusko Jaur-laritzak 200.572 euro gaz lagun du du proiektuan. Udalak erakundearen arteko lankidetzatxalotu du.



# OSTALARITZA GIDA



IURRETA

## GAUARGI



Dantzari, 4 behea  
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

## XIBERU



Zeilia Gallartzagoitia, 9  
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna  
 @xiberutaberna

DURANGO

## BASA Eroateko janaria



Untzilatx, 9  
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoek. Begiratu gure instagramean.

 @basa.durango



DURANGO

## OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52  
Tel.: 946 200 864



Eguedian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)

-Eguneko menua 19,90€  
-Dastatzeko menua 45 €  
-Karta

Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)

-Mokadu karta

\*\*TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi  
 @hotel\_olajauregi\_jatetxea



**anboto  
kide**

Anbotokideen  
txokoa

## URRIKO ZOZKETAK



**Xiberu tabernan**  
bi gosari bikoitz. Zornotza.



**Aukan izozkiak.**  
6 izozki edo etxera eramateko  
1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



**Errigoraren eskutik**  
Euskal Herriko produktuen otzara.

**Okm:**

batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman  
izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



# Ibilbide gidatua Mañariko ondarea ezagutzeko

Ondare Jardunaldien barruko ekimen bati eskerrak, Mañariko ondarea eta balio historikoa ezagutzeko aukera dago urriaren 20an egingo duten ibilbide gidatuan. Zallobentako eta Askondoko harrobiak bisitatuko dituzte, besteak beste

**J.D. MAÑARIA**

Ondare Jardunaldien egitarau zabalaren barruko ekintza batzuk Mañarian izango dira. Esaterako, urriaren 20ko domeka goizerako ibilbide gidatu bat antolatu dute, Mañariko hainbat txoko ezagutzeko. Mañariko Udalak eta Gerediaga Elkarteak elkarlanean antolaturiko ekimena da. Plaza mugatuak daude eta aurretik eman behar da izena.

Urkiolako bidea Bizkaiko ate bat izan da betidanik, eta Mañaria bide horretan eraiki eta garatu zen. Bilakaera horretan, bideagaz ezinbesteko lotura duten hainbat toki eta eraikin ezagutuko dituzte ibilbide gidatuan. Horrela, Arrueta auzoan murgilduko dira, eta Zallobentako eta Askondoko harrobiak ezagutuko dituzte. Bere sasoiari, Mañariko harrobiak ezagunak izan ziren kalitate handiko marmola zutelako. Madrilgo Errege Jauregira ere eramane zuten marmol ospetsu hori, XVIII.



Mañariko Arrueta auzoa. WIKIPEDIA

mendean zehar. Horregaz batera, San Lorentzo argi etxera eta Kaltzada baserrira joango dira, bentak eduki duen garrantzia azaltzeko. Izan ere, Kaltzada baserria benta izan zen XVII-XVIII. mendeetan.

**Hontza Museora bisita**

Ondare jardunaldien barruan, natur-zientzien Hontza Museoa hobeto ezagutzeko bisita bat ere antolatu dute urriaren 18rako. Museoko animalia espezieen bilduma aberatsa ezagutuko dute.

## Haizeteagaitik, argindarrik barik Izurtzako hainbat gunetan

Eguazteneko haize bolada zakarrek eraginda, Izurtzako toki batzuetan argindarrik barik egon ziren goiz osoan

**J.D. IZURTZA**

Eguztenean Bizkai osoa abisu horian egon zen, haize bolada zakarregaitik; baita alerta larriaren ere eguneko ordu batzuetan. Haizeak hainbat kalte eragin zuen Bizkaiko argindar horniduran, eta tartean Izurtzan ere bai. Hain zuzen ere, Izurtzako hainbat gunetan —gasolindegitik beherako etxebizitzetan, herri-gunean eta Bitano auzoan— argindarrik barik egon ziren eguztenean, 08:30etik 15:00 ingurua arte. Argindar sisteman egondako "matxura" baten ondorioz

joan zen argindarra, Iberdolako iturriek udalari jakinari ziotenez.

Matxura horrek 3.000 hornidura punturi eragiten ziela informatu zieten. Beraz, Izurtzatik haragoko eragina ere izan zuen. Esaterako, Durangoko Ibaizabal ikastolak bertan behera utzi behar izan zituen klaseak eguztenean. Eskola kirolari loturiko entrenamenduak ere bertan behera utzi zituzten Kurutzia ikastolan eta Tabira inguruan. Zaldibarko San Andres auzoan ere, auzotarrak argirik barik egon ziren iluntzera arte.

## Oier Araolazaren berbaldia Atxondoko urriko ekimenetan

Atxondon ekimenez beterik dator urria, Atxondoko Kultura Mahaiak antolatuta. Esaterako, urriaren 23an, Oier Araolazak *Kokomarro eta eske errondak neguko jaietan* izeneko berbaldia emango du. Askotariko pertsonaien inguruko kontuak kontatuko ditu, 18:30ean, liburutegian.

Bestalde, urriaren 24an, Errigora kanpainari hasiera emango diote. Nafarroa hegoaldeko tokiko ekiztuen produktuen bitartez euskara sustatzeko egitasmoa da Errigora. Askotariko produktuak otzaretan banatzen dituzte. Azkenik, urriaren 31n Arimen Gaua ospatuko dute Atxondon.



# Psikobonuak urriaren 19ra arte eskatu daitezke

Psikologiako profesionalek ere urriaren 19ra arte izango dute aukera kanpainara atxikitzeko. Bonua eskuratzeko, baldintza batzuk bete beharko dira. Abadiñarrek 5 euro ordainduko dute bonu bakoitzagaitik, eta gainerako 60 euroak udalak

## Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialagaz elkarlanean, *psikobonoak* programa ipini du martxan. 166 bonu ipiniko ditu herritarren eskura, eta herritarrek dagoneko badute bonuak eskatzeko aukera. Udal bulegoetan eskatu ditzakete, eta baita *abadiño.org* webgunearen bitartez.

Edurne Maguregi alkateordeak jakinarazi duenez, programak helburu bi ditu: terapiarako sarbidea erraztea, bereziki pertsonarik ahulenei, eta herritarrek sentsibilizatzea buru osasunaren prebentzioak eta zaintzak duten garrantziaren inguruan.



Kanpainan esku hartzen duten eragileek martitzenean egindako agerraldia.

Udalak 10.000 euro erabiliko ditu programa honetarako. "Badakigu ezingo diegula zerbitzua eman beharrezana duten herritar guztiei, diru muga dugu eta. Hala ere, programak zelako erantzuna duen ikusi gura dugu", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

Honako herritar hauek eskuratu ditzakete bonuak: urtean 20.500 euro baino gutxiagoko diru sarrera duten unitate bakarreko familiek, urtean 26.500 euro baino gutxiagoko sarrerak dituzten unitate biko familiek, urtean 29.000 euro baino gutxiagoko sarrerak dituzten hiru kideko familiek, eta urtean 31.500 euro baino gutxiagoko sarrerak dituzten lau laguneko familiek.

Bestalde, baldintzak betetzen dituen eskatzaileak lau bonu eskuratzeko aukera izango duela jakinarazi dute, eta bonuok lau hilabeteko epean erabili beharko direla. "Bonuak modu arduratsuan eskuratzeko deia egiten dugu, bonu bakar bat ere geratu ez dadin erabili barik", gaineratu du Maguregik.

## Lagunkoitasunaren inguruko prozesua martxan Abadiñon

### Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak eta Abadiño Lagunkoia taldeak udalerriko lagunkoitasunaren inguruko prozesu berri bat ipini dute martxan, herritarren, eta bereziki herriko nagusien parte hartzean oinarrituko dena. Abadiño Lagunkoia taldeak Abadiño pertsona nagusientzat herri lagunkoi bihurtzea du helburu, eta, une honetan, bigarren hobekuntza ziklo bati ekingo diote.

Abadiñoko herritar eta tokiko eragile guztiei galdetegi baten bitartez prozesuan parte hartzea eta iritzia elkarren artean partekatzea dei egin diete, nagusien ikuspegitik auzoak eta inguruak hobetzeko helburuz. Galdetegi urriaren 10etik 17ra bitartean bete ahal izango da.

Bestalde, 55 urtetik gorako pertsonen zuzenduriko parte hartze prozesu bat egingo da urriaren 24an, 18:00etan, Errota Kultur Etxean.



## FEDEROPTICOS APRAIZ 25 urte Abadiñon

1999an zabaldu zenuten optika, Trañabarren kalean, Traña-Matienan. Zelan oroitzen dituzue hasiera horiek? Ilusio handiz, bi ahizpak elkarregaz, eta, gainera, benetan maite dugun lan honetan. Ezin gehiago eskatu! Urduri ere bageunden, jakina. Ongietorri ederra izan genuen Abadiñoko jendearen partetik, eta bertsoak ere abestu zizkiguten: Optika ere zabaldu dute / hobeto ikusi dezagun. Mundiala izan zen.

Zer dela-eta Elgoibartik Traña-Matienara? Elgoibarren bigarren optika zabaldu zuten, eta Debegesarekin merkatu-azterketa egin eta gero hartu genuen erabakia Traña-Matienan zabalteko.

Deskribatu zuen optikaren bilakaera 25 urte hauetan. Hasieran optikarekin hasi ginen, gero audiologiako zerbitzua sartu genuen, eta, ondoren, ikusmen eta entzumen osasuna kontrolatzeko ekipamenduak. Eta iaiztik bistaren terapia zerbitzua ere eskaintzen hasi gara, betaurrekoekin konpondu ezin diren ikusmen arazoak zuzentzeko.



Zer da zuen lanetik gehien gustatzen zaizuen? Lehenengo eta behin, jendarekin harremana, guretzat oso pozgarria da gure lana; jendearen bizi kalitatea hobetzen dugulako, eta euren esker onaren aurrean ez daukagu hitzik sentsazio hori deskribatzeko. Oso hunkigarria da.

Internet bidezko kontsumo gorakadaren aurrean, eta herrietako denden egoera ikusita, zelan ikusten duzue etorkizuna? Gure eguneroko erronka izango da, hori argi dago. Kalitatezko zerbitzu eta produktuak eskaintzen jarraituko dugu, konfiantzazko harremana izaten bezeroekin, eskaintzak urte guztian zehar ematen. Jakina, beti berme onarekin, eta guk hartu nahiko genuekeen tratu berdina emanda bezeroari.



## "Ez dago fentanilo bidezko intoxikazio salaketarik"

Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gezurtatu egin dituzte azken egunetako mezuak

A.B. DURANGO

Martitzenean egindako urgen-tziazko agerraldian, Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak eta Jon Guajardo Barrualde-Galdakao ESiko kudeatzaileak adierazi zuten ez dagoela fentaniloak era-

gindako intoxikazioagaz loturiko salaketarik, eta egiazkoak ez diren mezuak ez zabaltzeak duen garrantzia azpimarratu zuten.

Horrez gainera, astelehenean esandakoa berretsi zuten: "Durangon ez da fentanilo bidezko

intoxikaziorik erregistratu, ezta salatu ere". Udaltzaingoak eta Ertzaintzak baieztatu dute ez dutela salaketarik jaso, eta Osakidetzak berretsi du ez duela fentanilo-kontsumo kasurik artatu.

"Tabernetan pertsonak droga-tzeko fentaniloa erabili dela aipatzen duen mezua faltsua da, eta herritarren artean alarma eta nahasmena sortzea du helburu", azpimarratu dute Mireia Elkoroiribe alkateak eta Jon Guajardo Barrualde-Galdakao ESiko kudeatzaileak.



Guajardo eta Elkoroiribe.

## POLITIKAN



PAULE SANCHEZ  
EAJ

## Gora San Fausto jaiak! Gora Durango!

Durangoko San Fausto jaiak emozioz bizi ditut eta urteak aurrera joan ahala, zirrara horrek bizirik jarraitzen du nigan. Egun hauetan, urduritasun puntu batek inbaditzen nau eta gogotsu itxaroten ditut familian edota lagunekin jai giroan eman eta betiko gordeko ditudan uneak.

Aurten ere, jai batzorde, udal teknikari, elkarte eta boluntarioen lanari esker, hamaika aukera izango dugu egitarau anitzaz disfrutatzeko. "Hona joatea nahiko nuke", "hau ezin dugu galdu", "bazkaldu ala café torero?", "barra-ketara bai, ezta?", "ta mozorroa, esan genduna?", "txapelketan parte hartuko dogu?"...

Zapia lepoan, txupinazoarekin jai giroak eztanda egiten du. Bereizten gaituenak alde batera uzten dira batzen gaituenaz gozatzeko, durangar izatearen sentimendua borbor dago eta harrotasun hori non-nahi sumatu daiteke.

Une horretan beti Eusebio Billaoren zortzikoa ezpainenara: "Alperrik izango da mundua zabal-a, herri hau izango da niretzat onena. Herri honetan jaio, bertan nahi dot bizi, herri politagorik ez dot nik ikusi. Beti izango zaitut bihotzez nik maite, Jaunak egunen baten zeruratu arte" eta horrekin bat, gure artean ez daudenak oroitu.

Jaiak emozioz bizitzera animatu nahi zaituztet, baita errespetuz eta arduraz ere.

Gora San Fausto jaiak, Gora Durango!

## DURANGALDEA ASTEON

### Hiru atxilotu eskualdean, droga trafikoa leporatuta

**DURANGALDEA** Kaleko jantzitako ertzainek hiru pertsona atxilotu zituzten astelehenean Abadiñon eta Iurretan, droga trafikoa leporatuta. 43 eta 48 urteko gizon bi atxilotu zituzten lehenengo. Ertzaintzaren esanetan, atxilotuek merkataritza lokal bat erabiltzen zuten estalgarri modura; establezimenduaren arduraduna atxilotu zuten gero, 29 urtekoa.



KOOPERATIBEN KONTSEILUA

### Omenaldia 50 urte egindako kooperatibei

**DURANGALDEA** Kooperatiben Kontseiluak merezitako omenaldia egin zien joan zen egunean, urriak 10, azken bost urteotan 50 urte egin dituzten kooperatibei. Urrezko urteurrena ospatu duten kooperatiba horien artean, eskualdeko kooperatiba batzuk ere izan ziren. Tartean, Durangoko Kurutzia Ikastola eta Elorrioko Txintxirri Ikastola.



@DIOCESISBILBAO

### Gittermanen 'Urkiolako pegoa' inauguratu dute

**ABADIÑO** Bilboko Elizbarrutiaren 75. urteurrena dela eta, Joe Gitterman eskultore estatubatuarrek *Urkiolako pegoa* eskultura egin du. Eskultoreak Estatu Batuetan sorturiko maketa oinarri hartuta, Eibarko Alfa Arte enpresan egin dute artelana. Lana altzairu herdoilgaitzekoa da, eta hiru metro eta 400 kilo inguru ditu. Inaugurazio ekitaldia domekan egin zuten, meza eta lanaren bedeinkazioarekin.

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:**

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## anboto

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 lurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrindia.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lagundua





Udal ordezkariak eta Mangamoreko parte hartzaileak.

## Zornotza mangaren topagune izango da

Manga, anime eta cosplay uztartzen dituen Mangamore jaialdia hamazortzigarren edizioa beteko du aurten. Japoniatik bertatik etorritako hainbat artista batuko da Zornotzan; besteak beste, Kanon Wakeshima txelo-jotzailea eta Yui Kanan DJa

**Aritz Maldonado** ZORNOTZA

Mangamore jaialdia adin nagusikoa izango da asteburutik aurrera. Izan ere, hamazortzigarren edizioa du aurten, eta jada erreferentziazkoa bihurtu da Durangaldetik kanpora ere. "Mangamorek milaka lagun erakartzen ditu Zornotzara, eta estatuan erreferentziazko topagune bihurtu da manga, anime eta *cosplay* zaleentzat", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Hain zuzen ere, Japoniako kulturak pisu handia izango du aurten edizioan ere. Besteak beste, Kanon Wakeshima txelo-jotzailea eta Yui Kanan DJa egongo dira Zornotzan. Biak japoniarrak dira; lehenengoa *dark cabaret* estiloan aditua da, eta Kanonek zuzeneko bizia du. Kai Iden artista frantziarrak borobilduko du musika eskaintza, K-pop kontzertu batez. Japoniako ohitura eta tradizioek ere presentzia handia izango dute Taiko, Sumi-e, Kitsuke eta arte martzial ikuskizunekin.

Nazioarteko artistek ez ezik, Zornotzakoek ere parte hartuko dute jaialdian. Horrela, Zornotza Musika Bandak kontzertua eman-

go du, Ukabidea karate taldeak karate erakustaldia egingo du, eta Kon-Gwe taldeak taekwondo erakustaldia. Bestalde, Erika in blue, Lazos Mikami, Ash eta SHXRO7 tokiko sortzaileek Artist Alley txokoa izango dute. Hain zuzen ere, bertako kideetarikoa bik parte hartu dute aurkezpenean, *The Witched* telesaileko protagonisten modura jantzita; ia hamar urte daramatzate topagunean parte hartzen. "Guretzat data bereziak dira. Halako topaguneekin alderatuta, Zornotzako etxekoagoa da, eta ezagun asko batzen gara bertan. Funtsean, Euskal Herriko komunitate osoa batzen gara, eta inguruko erki-degoetatik ere etortzen da jendea", azaldu dute. Koldo Bilbao zinegotziak manga zaleak ez direnak ere animatu gura izan ditu. Egitarau osoa [www.mangamore.eus](http://www.mangamore.eus) webgunean dago.

**Zelaieta ikasgela, itxita**

Mangamore ekitaldiaren ospakizuna dela eta, Zelaieta ikasgela itxita egongo da asteburu osoan. Baina Konbenio ikasgela erabilgarri egongo da, betiko ordutegian.





# EITB Durangoko Azokaren babesle aurrerantzean

**DURANGOKO AZOKA** Eragile bien arteko lankidetzeta hitzarmena sinatuta, EITB Durangoko Azokaren babesle izango da; hitzarmenagaz, Azoka "indartuta" irtengo delakoan daude; 2024ko Durangoko Azoka abenduaren 5etik 8ra bitartean izango da

**A. M. DURANGO**

Gerediaga Elkarteko presidente Nerea Mujikak eta EITBko zuzendari Andoni Aldekoak hitzarmena sinatu dute Bilbon egindako ekitaldian. "Durangoko Azokak askotariko bidelagunak behar ditu: sortzaileak, partaideak, herritarrek, erakundeak eta babesleak ere bai", nabarmendu du Mujikak ekitaldian. EITBk ere "atsegin handiz" hartu du lankidetzeta, eta baita babesle bilakatzea ere. "Euskararen eta euskal kulturaren herri adierazpen handian, gure presentzia handitzea egin beharra eta helburu da", azpimarratu du Aldekoak. Gerediagako kudeatzaile Beñat Gaztelurrutiak ere balio garrantzitsua eman dio hitzarmenari: "Urrats garrantzitsua izango da euskal kulturegintza bultzatzeko, nahiz eta jakitun garen Durangoko Azoka kulturegintza horren zati bat baino ez dela. Bide luzea dugu egiteko zeregin horretan,



Gerediagako eta EITBko ordezkariak.

eta urrats honek bidea erakutsiko digu". Durangoko Azokak eta EITBk aurretik ere landu dituzte kolaborazioak; besteak beste, Biba Zuek magazinean eta Mihiluze saioan. Sinatu berri duten hitzarmenagaz, kolaborazio horiei eutsi eta berriak sortuko dituzte. Horrela, aurre-

rantzean EITBk ahalegin berezia egingo du Durangoko Azokaren berri emateko, ekitaldian azaldu dutenaren arabera. Irrati, telebista eta eremu digitaleko edukietan tarte handiagoa eskainiko dio euskal kulturaren topaguneari, eta hainbat saio emitituko du Azokatik bertatik.



Xabi Gaztelu, hirugarrena eskumatik, eta ordezkari politiko eta kulturalak.

## Xabi Gazteluren 'Playground' erakusketa ikusgai Durangon

**MARGOLARITZA** Hamarkada bat geroago, Xabi Gaztelu durangarrak berriro erakutsiko ditu bere lanak museoan

**Aritz Maldonado DURANGO**

Xabi Gazteluk bigarren ez erakutsiko ditu bere lanak Durangoko Arte eta Historia museoan. Hamarkada batean ikasitakoagaz, "aurrekoaz zerikusirik" ez duten lanek osatzen dute *Playground*. "Oinarrira jo gura nuen lan hau egiteko, kolorera eta marrara, eta hortik eraikitzen hasita ez diot mugarik ipini neure buruari. Lan honek musikagaz antzekotasunak dituela esango nuke, erritmoagaz eta melodiekin batez ere, eta, gainera, elkarren segidan ikusteak bitxi egiten ditu", azaldu du gaur egun Ma-

lagan (Espainia) bizi den artistak. Ofizios zaharberritzailea da Gaztelu, baina txikitatik marraztu du. "Plazera da nire lana Durangon erakutsi ahal izatea. Malagan bizi naiz, baina hau ere nire etxea da", argitu du.

Garazi Arrizabalaga Arte eta Historia museoko zuzendariak Gazteluren ibilbidea goraiatu du: "Begiratzeraz gonbidatzen duten 30 lanek osatzen dute erakusketa. 2013an aurreko erakusketa egin zuenetik, estilo propioa garatu du, grafitigile hasi eta zaharberritzaile modura urteetan trebatu eta lan egin eta gero".



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJIKA BEHARGINA

## Ostikada

Alaine Agirre izan nahi dut baina zuk badakizu eta nik badakit hori ez dela gertatuko eta konformatu beharko dudala *Karena* liburuan erabiltzen duen idazkerari keinu hau egiten ezer sortzeko gaitasun larrausardiaazalaegoak onfiantzasegurtasunaplaza ez ezik denbora falta zaidalako zutabe duinederberrieraginkorezkertiarkulturalapurtzailezuzenfe-ministaerakargarrierraz bat idazteko eta erabaki dut originaltasunari oda txiki hau egitea horrela bainabil ni eta horrela zabilzalako zu egunaren 24 orduak txiki geratzen zaizkigula zurrunbilotik atera ezinda eta itota erabat itota ez daukadalako nik eta ez daukazulako zuk apenas astirik arnasa hartzeko zutabe honetako berbek ez daukaten gisan baina ez da ezer gertatzen bizitzak galtzen duen bitartean gizonakaberatsek Elizakenezpresariek Israelek poliziakpetrolioak Audientzia Nazionalak irabazten duelako eta ez du inporta gaur ez baduzu kirola egiteko astirik eta ez

kexatu biharko tuperra prestatu barik badaukazu eta ez kontatu asteak daramatzazula laguna ikusi barik eta ze petarda beti kexaka zabilzan hori ze astuna egunero zerbait daukazun hori ze negartia minez zaudenean eta ez da horrenbesterako beste batzuk txarrago daudelako eta urteko sasoi hau honelakoa da beti eta pasatuko da eta ni ere horrela nenbilen zure adinarekin eta etorriko dira beste

**"EZ DU INPORTA GAUR EZ BADUZU KIROLA EGITEKO ASTIRIK ETA EZ KEXATU BIHARKO TUPERRA PRESTATZEKO BADAUKAZU"**

ardura batzuk eta eta orduan jakingo duzu zer den ona eta lasaiegonegontrankiltrankilhartuhartulasaitrakilbilibililasai eta iraila izan zen eta urria da orain eta badator Pantxike baina ez gaude denok eta ni ere ez dakit egon nagoen nonbait eta baina ez esan inori mesedez ni ez naizelako petardaastunnegartimarmartikexatidramatikahisteriko bat eta nola esaten da *intensa* euskaraz eta zu ere ez zara horrelako ezer eta noski lasai zaudela eta bai ni ere trankil nago ezin garelako bestela egonaurkeztubiziager-tuerakutsiirakurriazaldu eta ondo bizi gara oso ondo bizi gara Durangon eta barkatu aita testugintzarizuzentasunarikonkordantziarikoharentziaridialektikari ezagutzen ez ditudan hitz tekniko guztiei eta batez ere horren kutun eta horren maite duzun puntuzioari eman diodan ostikadagatik.

\*ostiralean arratsaldeko seietan Zurriolan bazkaldu nituen antxoei eskainita.



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 11

## ABADIÑO Erakusketa

'Natura ilustratzen' erakusketa (EHUko ilustrazio zientifikoko masterreko ikasleen lanak). *Urkiolako Parke Naturaleko parketxean, abenduaren 20ra bitartean.*

## IURRETA Sanmigelak

Intxausti eta Larrañaga trikitilariak. *Aita San Migel plazan, 19:00etan.*

## DURANGO Lehiaketa

Durango Uria XXIV. Pintura Lehiaketa (Durangaldeko Artista Elkarte). *Durangoan.*

## DURANGO Erakusketa

'Playground' (Xabi Gazteluren lanak). *Arte eta Historia Museoan, azaroaren 24ra bitartean.*

## ELORRIO Jokoa

Oztopodun errelebo-jokoa. *Gazte Goza Gunean, 17:00etatik 20:30era.*

## ZORNOTZA Jaialdia

XVIII. Mangamore jaialdia. *Zornotzan, 17:00etatik 22:00etara.*

## ZAPATUA 12

## ABADIÑO-GARAI Ibilbide Gidatua

'Merinoaren Ibilbidea'. Abadiño eta Garaiko udalek Gerediaga elkarreagaz antolaturiko ekitaldia. Europako Ondare Jardunaldiak.

*Traña-Matienako tren geltokian, 10:30ean.*

## BERRIZ Sanfaustoak

Donien atxa altxatzea, 18:00etan. Kontzertu akustikoa: Xabier Zeberio eta Iñar Sastre, 19:00etan. *Eitua auzoan.*

## ELORRIO Jokoa

Mihi luze Txapelketa. *Gazte Goza Gunean, 17:00etatik 20:30era.*

## IURRETA Urrijena

Argazkia, 09:15ean, plazan Kalejira, 10:15ean, aparkalekutik plazara herriari buelta emanez. Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza, 12:00etan, plazan. Omenaldia 65 urtetik gorakoei. Soka Dantza. Bazkaria, 15:00etan, Askondon. Bada Giro taldea, 17:00etan. *lurretan.*

## IURRETA Irteera

Nabarnizera bizikleta irteera. lurreta Txirrindulari Elkarte. *lurreta, 09:00etan.*

## ZORNOTZA Jaialdia

XVIII. Mangamore jaialdia. *Zornotzan, 11:00etatik 23:00etara.*

## DOMEKA 13

## BERRIZ Ginkana

Ginkana Berriztik zehar. *Gaztelekuan, 17:00etatik 20:00etara.*

## BERRIZ Sanfaustoak

Meza, 11:00etan. Iremiñe dantza taldea, 12:00etan. Odolosteak eskainiko dira. *Eitua auzoan.*

## IURRETA Irteera

Ondarroara bizikleta irteera. lurreta Txirrindulari Elkarte. *lurretan, 09:00etan.*

## ZORNOTZA Jaialdia

XVIII. Mangamore jaialdia. *Zornotzan, 11:00etatik 20:00etara.*

## BARIKUA 18

## BERRIZ Antzerkia

'Alizia herrialde miresgarrian' (Irú Teatro konpainia). *Berrizko Kultur Etxean, 17:00etan.*

## ELORRIO Esperimentuak

Gaztekoentzako esperimentuak. *Gazte Goza Gunean, 17:00etatik 20:30era.*

## MAÑARIA Bisitaldia

'Gure animalien bide bitxiak' batzuk. Hontza Museoak antolatuta. *Hontza Museoan, 11:00etatik 12:00etara (euskaraz) eta 12:00etatik 13:00etara (gaztekeraz).*

## ZAPATUA 19

## BERRIZ Tailerra

Sukaldaritza tailerra. *Gaztelekuan, 17:00etatik 21:00etara.*

## ELORRIO Tailerra

Sukaldaritza tailerra. *Gazte Goza Gunean, 17:00etatik 20:30era.*

## MALLABIA Ibilbide Gidatua

'Andabidea zordanbidea'. Mallabiko Udalak eta Gerediaga elkarreagaz antolaturiko ekitaldia. Europako Ondare Jardunaldien barruan. *Udaletxean, 10:00etan.*

## OTXANDIO Ibilbide Gidatua

'Bidea, muga eta uria'. Otxandioko Udalak eta Gerediaga elkarreagaz antolaturiko ekitaldia. Europako Ondare Jardunaldien barruan. *Plazan, 17:00etan.*

## ZORNOTZA Ibilbide Gidatua

'Amorebieta-Etxanotik Goikolexeara: bidea-galtzada'. Zornotzako Udalak antolaturiko ekitaldia. Europako Ondare Jardunaldien barruan. *Urritxeko futbol zelaian, 09:30ean.*

## DOMEKA 20

## ELORRIO Antzerkia

'Alizia herrialde miresgarrian' (Irú Teatro konpainia). *Arriola Antzokian, 17:00etan.*

## MAÑARIA Ibilbide Gidatua

'Harrobiak, bideak eta bentak'. Mañariko Udalak Gerediaga elkarreagaz antolaturiko ekitaldia. Europako Ondare Jardunaldien barruan. *Plazan, 10:30ean.*

## ZINEMA

## ABADIÑO

## ERROTA KULTUR ETXEA

**Bilboko Film Sozialak, zinema ikusezinen jaialdia.**  
barikua 11: 19:00.

## BERRIZ

## KULTUR ETXEA

**Buffalo Kids**  
domeka 13: 17:00.

## DURANGO

## ZUGAZA ZINEMA

**La infiltrada**  
barikua: 18:00, 20:30.  
zapata: 17:15, 19:00, 21:30.  
domeka: 17:00, 19:30.  
astelehena: 18:00, 20:15.  
martitzena: 18:00, 20:15.  
eguztzena: 19:00.

## EI 47

barikua: 18:00, 20:30.  
zapata: 17:15, 19:30, 21:30.  
domeka: 17:00, 19:30.  
astelehena: 18:00, 20:15.  
martitzena: 18:00, 20:15.  
eguztzena: 19:00.

## Roboto salvaje

barikua: 18:00, 20:30.  
zapata: 16:45, 19:30, 21:30.  
domeka: 17:00, 19:30.  
astelehena: 18:00, 20:15.  
martitzena: 18:00, 20:15.  
eguztzena: 19:00.

## ELORRIO

## ARRIOLA ANTZOKIA

**Hipnosys**  
zapata 12: 20:00.  
domeka 13: 20:00.  
astelehena 14: 20:00.

**Buffalo kids**  
domeka 13: 17:00.

## ZORNOTZA

## ZORNOTZA ARETOA

**El bus de la vida**  
astelehena 14: 20:15.


**El eco**  
martitzena 15: 20:15.

## ZORNOTZA Dantza

Led Silhouette konpainiaren *Los Perros* lana ikusteko aukera egongo da urrian. Dantza garaikidearen eszena europearrean aitzindaria den Marcos Morau da zuzendari artistikoa. *Urriak 18, barikua, Zornotza Aretoan, 20:00etan.*



LED SILHOUTTE





# DURANGOKO SAN FAUSTOAK 2024

## URRIAK 11

**18:00** Kuadrillen elkarretaratzea eta animazioa San Fausto auzoan.

**18:30** Durangoko pilota eskolako umeen partiduak. San Fausto pilotalekuan eta Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Antolatzailea: Durango pilotazale kluba)

**19:00** Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren, kuadrillen jaitsiera udaletxeko plazaraino, Sugarri fanfarreagaz.

**20:00** Txupinazioa udaletxeko plazan.

**20:15** Argazkien bideoa: San Faustoko jaiak, antzinako eta gaur egungo bizipenak. Andra Mariko elizpean ipiniko den pantailan.

**20:30** Kalejira Santa Anatik txosnagunera. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**21:00** Txupinazioa txosnagunean, euskalgintzako eragileen eskutik.

**21:00** Kale animazioa Sugarri fanfarreagaz.

**21:30** Kontzertuak: Gozzue, Ainke, Katu, DJ Kuku eta DJ Kene txosnagunean.

**22:00** Kontzertua: Shinova. Ezkurdin.

## URRIAK 12

**DURANGOKO RUGBY TALDEAREN EGUNA. MOZORROA: OLINPIAR JOKOAK**

**07:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**08:30** Sukalki txapelketak Landako Gunean. (Izen ematea eta informazioa Intxaurren, irailaren 24tik aurrera plazak bete arte).

**11:00 - 13:00** Umeentzako marrazki lehiaketa San Fausto auzoan. Izen ematea 10:00-12:00. Adina: 6-17 urte.

**11:00 - 14:00** Umeentzako parkea Landako Eskolan (Euria bada, Landako Eskolako frontoian).

**11:00 - 14:00** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

**11:30** Ipuina ingelesez Ezkurdiko kioskoan. 3tik 8 urtera arteko umeentzat. (Euria bada, Jesuitak ikastetxean. (Antolatzailea: Kids & Us)

**12:00** Kalejira musika eskolako txistulariekin.

**12:00** Gazte kamiseta banaketa. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**12:30** Kalejira Bogoroditsie abesbatzaren eskutik, Alde Zaharretik.

**13:00** Tio Teronen Semeak dantza konpainia. Haurreskolari ikuskizuna. Ezkurdin. (Euria bada, Nevers ikastetxean)

**14:00** Herri bazkaria San Fausto auzoan. (Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarteak).

**14:30** Gazte bazkaria txosnagunean. (Euria bada, Kurutzia ikastolan).

**16:00 - 19:00** Umeentzako parkea Landako Eskolan (Euria bada, Landako Eskolako frontoian).

**16:00** Skate tailerrak eta erakustaldia. Landako skate pistan. (Euria bada, ez da egingo).

**16:30** Musika animazioa DJ MiniAnn, Landako Gunean.

**17:00** Gazte jolasak txosnagunean.

**17:00** Familientzako herri kirolak Ibaizabal parkean. (Euria bada, txosnaguneko karpan. (Antolatzailea: Auzo Alai elkarteak)

**17:00** Kuir Eztearen poteo transmaribolloa Pinodontik txosnagunera. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**17:30** Senegalgo erritmoak, M'Lomp elkartearen eskutik. Ezkurditik hasita.

**18:00** Umeentzako entzierroa zezen puzgarriekin eta gurdiekin. San Fausto auzoan.

**18:00** Magia saioa Eleder Magoaren eskutik: 'Magia mundiala'.

**18:00** 39. San Fausto zesta-punta txapelketa. Finalak. Neskak eta mutilak gazte-nagusi mailan. Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. (Antolatzailea: Durango Jai Alai zesta-punta eskola)

**18:30** Txaranga txosnagunetik hasita. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**19:30** Blusa txaranga Sugarri fanfarreagaz. Irteera Ezkurditik.

**19:30** Kalejira mariatxiekien San Fausto auzoan. (Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarteak)

**20:00** Umeentzako kontzertua: 'Batetik bestera kontzertua', Benetan Be konpainiaren eskutik. Benita Uribarrena parkean. (Euria bada, Plateruenan).

**21:00** Kontzertua: Puro Relajo. Andra Marian.

**21:30** Ghanako txaranga. Alde Zaharretik.

**22:00** Disko dantza San Fausto auzoan.

**22:00** Kontzertuak txosnagunean: La Txama, Tatzers eta Malakias MX3.

**22:30** Kontzertua: Caiman orkestra Madalenan.

**23:00** Kontzertua: DJ Markelin. Ezkurdin.

## URRIAK 13

**07:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:30 - 14:30** Eixu artisauek elkartearen azoka Ezkurdin.

**11:00 - 14:00** Umeentzako puzgarriak San Fauston

**11:00** Paella txapelketa San Fausto auzoan. Izen ematea: San Fausto frontoian. Paellak aurkeztea 14:00etan, 14:30etan. (Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarteak)

**11:00** Meza nagusia San Faustoko elizan.

**11:00** Umeen goitibeheren jaitsiera. Probak. Tabira auzoan.

**11:00 - 14:00** Umeentzako parkea Landako Eskolan (Euria bada, Landako eskolako frontoian).

**11:00 - 14:00** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

**11:00 - 13:00** Umeentzako tailerrak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean (Antolatzailea: Inurri Skaut)

**12:00** Poneyak eta zaldiak Ibaizabal parkean (Euria bada, ez da egingo).

**12:00** Ume familientzako ikuskizuna Txosnagunean.

**12:00** Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

**12:00** Arte Martzialen kalejira. (Antolatzailea: Wado Kan Karate - Ninjitsu elkarteak)

**12:30** Paella txapelketa txosnagunean. Sari banaketa, 14:00etan.

**12:30** Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan. Ondoren, Kriskitin Dantza Taldea. Amaitzeko: Larrain

**dantza.** (Euria bada, Andra Mariko elizpean).

**13:00** Durango kantari. Egundo I taldea. Alde Zaharretik.

**16:00** III. goitibeheren jaitsiera Tabira auzoan.

**16:00 - 19:00** Umeentzako parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian).

**17:00** Gazteentzako jolasak Ezkurdik. (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**17:00** Mañaria errekarren jaitsiera Tabiratik. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**17:00** Txokolatada San Fausto auzoan. (Euria bada, San Faustoko frontoian. (Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarteak).

**17:30** Umeentzako jolasak San Fausto auzoan. (Euria bada, San Faustoko frontoian. (Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarteak).

**18:00** Antzerkia: Herencia ikuskizuna, La Industrial teatreraren konpainiaren eskutik. Ibaizabal parkean. (Euria bada, Kurutzia ikastolan).

**18:30** Dantzaro: Patxi eta Konpainia taldea. Andra Mariko elizpean.

**19:00** Bertso poteoa txosnagunean. (Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**20:00 - 22:00** Umeentzako diskodantza San Fausto auzoan.

**21:00** Kontzertua: Haize Arrosa. Ezkurdin.

**21:30** Karaokea eta DJ Maratoni herrikoia txosnagunean.

**22:00** Diskodantza San Fausto auzoan.

## URRIAK 14

### UMEEN EGUNA

**07:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:00 - 12:00** Durango Irratia airean! Solasaldiak. Zuzeneko programazioa Ezkurdiko kioskotik, Durangoko udal ordezkariarekin eta herritarrekin.





ESNE BELTZA

**23:00 Esne Beltza.**  
Kontzertua.

**11:00 Umeentzako xake txapelketa Andra Marian.**  
(Antolatzailea: Larrasoloeta xake taldea).

**11:00 - 14:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan**  
(Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

**11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean**  
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**11:30 Umeentzako kalejira Alde Zaharretik, buruhandiek.**

**12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.**

**12:00 Patxikotxugaz kalejira San Antoniko ikastetxeagaz, Ezkurditik udaletxera. Ondoren, ohorezko aureskua Kriskitit Dantza Taldearen eskutik.**

**12:30 Txupinazo txikia udaletxeko plazan.**

**13:00 Animazioa: DJ Bull.**  
Andra Mariko elizpean.

**14:00 Nagusientzako bazkaria Landako Gunean, orkestrak girotuta.**

**16:00 - 19:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan**  
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**17:00 Tailerren txokoa eta Pomper ikuskizuna Ezkurdin.**  
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**17:00 Apar jaia eta txokolatada. Muroetatorren.**  
(Antolatzailea: Murueta Torre auzo elkarte).

**18:00 Tortilla txapelketa San Fausto auzoan. Tortillak aurkezteko epea: 20:00ak.**  
(Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte)

**18:30 Antzerkia: Erantsi SL**

**ikuskizuna Goitibera antzerkia konpainiaren eskutik.**  
Otamotzena parkean.  
Euria bada, Kurutziaga ikastolan

**20:00 Kontzertua: Gaur jaia taldea, Andra Mariko elizpean.**

## URRIAK 18

**18:00 Trotamundos zirku taldea Ezkurdin 'Finito-Infinito' ikuskizunagaz**  
Euria bada, Kurutziaga ikastolan.

**19:00 Tortilla txapelketa, Txosnagunean. Sari banaketa, 20:30ean.**

**19:00 Pilota Fest, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan: Mikel Goñi-Bernaola / Oinatz Bengoetxea-Eguren.**

**19:30 Fanfarreen arteko norgehiagoka. 'Deiadar' fanfarrea Otamotzena auzotik aterako da. Tximeletak txarangaren hasiera Madalena auzotik.**

**20:00 Kontzertua: Astarloa Otxotea, Bogoroditsie eta Izar Gaztea. Durangoko abesbatzak Santa Ana elizan.**

**20:00 Umore ikuskizuna: 'Monólogos a dos bandas'. Andoni Agirregomezkorta eta Nerea Garmendia.**  
Andra Mariko elizpean.

**21:30 Kontzertua: Nahiez taldea, Ezkurdin.**

**21:30 Fanfarreen norgehiagoka udaletxeko plazan.**

**22:00 Kontzertuak: Txopet, Pinpilinussies eta Belako.**  
Txosnagunean.

**22:30 Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Jon Maia, Jone**

**Uria, Aitor Bizkarra, Xabat Illarregi eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga.**  
San Agustin Kulturgunean.  
Gonbidapenak Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

**23:00 Kontzertua: Esne Beltza.**

## URRIAK 19

**07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.**

**07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.**

**11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu bakoentzat Ezkurdin.**  
Izen ematea, txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.  
(Antolatzailea: Larrasoloeta xake taldea).

**11:00-14:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan.**  
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**11:00 - 14:00 umeentzako tailerrak Asebier elkartearen eskutik. Landako Eskolan**  
Euria bada, Landako Eskolako frontoian.

**12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.**

**12:00 Kalejira trikitilarietxiki Txiri-txiri taldearen eskutik.**

**12:00 XV. patata tortilla txapelketa Landako Gunean.**  
Izen ematea eta informazioa: Intxaurren, urriaren 1etik aurrera.

**13:00 Kontzertua: Luhartz taldea Andra Mariko elizpean.**

**14:00 Elkartasun bazkaria.**  
Txosnagunean.  
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**16:00 - 19:00 Umeentzako parkea Landako Eskolan.**  
(Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

**17:00 Animazioa trikitilarietxiki adinekoen egoitzatik hasita.**

**17:00 Karaoke ibiltaria herriko kaleetatik.**

**18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz.**

**18:00 Kalejira Elektrotxarangagaz.**  
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**18:30 Antzerkia: Harreman ikuskizuna, Zirkozaurre elkartearen eskutik.**  
Ibaizabal parkean.  
Euria bada, Kurutziaga ikastolan.

**18:30 Mozorroren desfilea Madalenatik Andra Mariko elizperaino. Amaieran sari zozketa.**

Izen ematea: urriaren 1etik 18ra Intxaurren.

**20:00 Erromeria: Luhartz taldea.**  
Andra Mariko elizpean.

**22:00 Kontzertuak: Rolando Bruno eta Goxua'n Salsa.**  
Txosnagunean.  
(Antolatzailea: Txosna Batzordea)

**23:00 Atlantida Show Orkestra.**  
Ezkurdin.

**00:00 - 03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa.**  
Txosnagunean.  
(Antolatzailea: Mankomunitatea)

## URRIAK 20

**7:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.**

**7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.**

**10:00 Mañaria ibaiaren garbiketa.**  
Hasiera: Pinondo Plazan.

**10:00 Dantza maratoia. Batxata, kizomba, saltsa eta afro dance tailerrak. Ondoren, dantza bermuta animazioagaz girotuta.**  
Murueta Torre auzoan.  
Euria bada, Plateruenan.  
(Antolatzailea: Murueta Torre auzo elkarte)

**11:00 San Fausto XII. Padel txapelketako finalak.**  
Landako kiroldegian.  
(Antolatzailea: Padelzaleak).

**11:00-14:00 Txikientzako parkea Landako eskolan.**  
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.**  
Euria bada, Landako Gunean.

**12:00 Marrazki lehiaketa.**  
San Fausto auzoan.  
(Antolatzailea: Centro Social San Fausto)

**12:00 Emanaldia: Tabira Musika Banda.**  
J.M. Barandiaran egoitzan.

**12:00 Poneyak eta zaldia.**  
Tabira parkean.  
Euria bada, ez da egingo.

**12:00 Kalejira, Musika Eskolako txistulariekin.**

**12:00-14:00 Arku Tiorako Gunea, Ibaizabal parkean**

Euria bada, Landako Gunean.  
(Antolatzailea: Durangoko Arkulariak).

**12:30 Herri Kirolak. Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Karmele Gisasola, Bihurri, Karlos Aretxabaleta, Goizeder Beltza, Ainhoa Larrinaga eta Aratz eta Enara Beltza ume aizkolariak.**  
Ezkurdin.  
Euria bada, Landako Gunean.

**12:30 Kalejira Alde Zaharretik: Astarloa Otxotea eta Iruñeko Ahots Taldea.**

**13:00 Durango Uria XXIV. Margo Lehiaketako sari banaketa.**  
Ezkurdiko erakusketa aretoan.  
(Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte)

**13:15 Kontzertua: Tabira Musika Banda Andra Marian.**

**16:00 Arku Tiro txapelketa.**  
Landako Gunean.  
(Antolatzailea: Durangoko Arkulariak)

**17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa: L'Atelier Dantza Eskola.**  
Ezkurdin.

**18:00 Musika saioa: De Balada taldea Andra Marian.**

**18:30 Gora eta Gora adinekoen antzerki taldea 'Las que cuentan' ikuskizunagaz.**  
San Agustin kulturgunean.  
Gonbidapenak doan Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

**18:30 Kalejira Irulitxa fanfarreagaz Alde Zaharretik.**

**19:30 Kalejira Patxikotxuri eta jaiei agur egiteko.**

**20:00 Su artifizialak.**

## URRIAK 26

**20:00 Durango txistu kontzertua 2024.**  
(Antolatzailea: Silboberri)

## URRIAK 27

**08:00 Durangoko I. Mendi martxa. Ibilbide luzea, 25km. Irteera 08:00etan. Ibilbide laburra, 14km. Irteera 09:00etan. Landako Gunetik hasiko dira biak.**

**12:00 55. Umeen Euskal Jaia. Talde guztiak Landako Gunean batuko dira. Kalejira egingo dute. Ondoren, alardea Ezkurdin.**  
Euria bada, Landako Gunean.



# "Mendiak izan dira hona etortzeko arrazoi bat"

**MENDI LASTERKETA** June Villarroel Olza Urkiola Kopako protagonista nagusia izan da. Kopako hiru lasterketak irabazita jantzi du txapela. Madrildarra jaiotzez, urtebete darama Elorrion bizitzen, eta ingurua asko gustatzen zaiola adierazi du

J.D. ELORRIO

Oraintsu arte June Villarroelen izen-abizenak arrotzak ziren eskualdean, baina denbora gutxian denen ahotan egotera pasatu da, batez ere mendi lasterketen munduan. Sorginen Lasterketa, Mañaritik Atxetara eta Aramotz mendi lasterketetan makina bat bider izendatu dute megafoniatik, irabazle helmugaratu izan denean zein podiumera igo den bakoitzean. Urkiola Kopan goitik behera agindu du eta merezimendu osoz jantzi zuen txapela joan zen asteburuan, Zornotzan.

**Zelan joan zen Aramotz mendi lasterketa?**

Oso lasterketa polita izan zen. Aurreko lasterketa batzuek baino desnibel gutxiago izatea eskertu nuen, azken proba horretara apur bat nekatuta heldu nintzelako. Ibilbidea nahiko lupeztuta zegoen, baina ondo egiteko modukoa zen. Ibilbide entretenigarria zen eta gozatu egin nuen.



June Villarroel Zornotzan, Urkiola Kopako txapelagaz.

**Oraintsu arte ez zintugun ezagutzen inguruotan. Denbora gutxi daramazu hemen, ezta?**

Madrildarra naiz eta egunotan beteko da urtebete hona etorri nintzela. Bikotekidea eta biok etorri ginen. Durangoko Kiro-

lenen [Kirol Irakaskuntzen ikastetxe publikoa] ikasten gabiltza. Mendiko gidariak izateko ikasketak egiten gabiltza. Elorrion bizi gara.

**Hemen bakarrik egin daitezke mendiko gidaria izateko ikasketak?**

Ez, Madrilen bertan ere badago aukera, baina hona etortzeko gogoan nuen, hemen senitarte-koak ditudalako.

**Horregaitik 'June' izena?**

Hain justu ere. Amaren familia Gipuzkoakoa da; Tolosakoa, hain zuzen ere. Beraz, ikasketak hemen egiteak ilusioa egiten zidan.

**Urkiola Kopan goitik behera aginduz duzu. Hasieratik zeneukan pentsatuta bertan parte hartzea?**

Ez, nahiko bat-batekoa izan da. Banuen Sorginen Lasterketa egiteko asmoa, asko gustatzen zaidan ibilbidea duelako. Ondoren, Golden Trail Series nazioarteko zirkuituko lasterketak egiten jarraitu gura nuen, baina Polonian lehiatu behar nuen proba bat bertan behera geratu zen. Horregaitik eta beste arrazoi batzuegaitik etxe inguruko lasterketetan ipini nuen arreta. Ibilbideei begiratu, eta asko gustatu zitzaizkidan. Urkiola Kopari oso itxura ona hartu nion. Entrenatzen naizen tokietatik igarotzen ziren eta inguru horiek lasterketetan egiteak ilusioa egiten zidan.

**Hiruretatik zein gustatu zaizu gehien?**

Hirurak asko gustatu zaizkit. Beharbada, Mañariko lasterketaz gozatu nuen gehien. Oso ibilbide teknikoak du, desnibel askokoa, eta horrelakoetan asko gozatzen dut. Gainera, inguru haiek asko gustatzen zaizkit: Untzillatx, Astxiki, Anbotoko gailurreria, Urkiolamendi...

inguru ederrak dira, lasterketa batean nahiz edozein egunetan bisitatzeko modukoak. Egia esanda, Durangaldean mendi eta paisaia zoragarriak daude. Aramotz mendi lasterketako inguruak ez nituen hainbeste ezagutzen, eta niretzat deskubrimendu bat izan da. Hemengo mendiak dira hona ikastera etortzeko arrazoi bat. Toki ideala iruditzen zait trail munduan lehiatzeko eta trebatzeko. **Denbora asko daramazu mendi lasterketak egiten?**

Atletismoan hasi nintzen, asko hasten diren moduan. Mendiak beti gustatu izan zait eta asko ibili izan naiz mendian, baina ez korrika. Orain urte bi hasi nintzen eta urtebete inguru daramat modu serioan lehiatzen.

**Aurrera begira, zer asmo duzu datozen asteetarako?**

Denboraldia amaitzear dago. Golden-eko azken probara, Suitzakora, ez naiz joango. Espainiako Kopan parte hartzen ere banabil, promesen mailan. Une honetan lider nago eta Andaluziako azken lasterketara joango naiz.

**"ORAIN URTE BI HASI NINTZEN MENDIAN KORRIKA. URTEBETE DARAMAT MODU SERIOAN LEHIATZEN"**

# "Lider ipinitakoan, aprobetxatu egin behar nuela pentsatu nuen"

**MENDI LASTERKETA** Gizonetan, Irazu Aranburu Antxia mallabitarrak jantzi du Urkiola Kopako txapela

J.D. DURANGO

Joan zen domekan, Irazu Aranburuk laugarren postuan amaitu zuen Aramotz mendi lasterketa, eta emaitza horregaz baturiko puntuak nahikoa izan dira Urkiola Kopa irabazteko. Erregularitasunak eman dio Kopako txapela: Mañaritik Atxetara 22 kilometroko proba irabazi egin zuen, eta gainerakoetan beti goian ibili da: Sorginen Lasterketan bosgarren amaitu zuen, eta Aramotzekoan laugarren geratu da. Hasieran ez zuen Kopa osoa egiteko asmorik.

"Sorginen Lasterketa etxeko lasterketa modura sentitzen dut eta horregaitik egin nuen. Gero Mañaritan irabazi eta lider ipini nintzenez, aukera aprobetxatu behar nuela pentsatu nuen", adierazi du.

**MAÑARITIK ATXETARA LASTERKETA IRABAZI ZUEN ETA BESTE PROBA BIETAN GOIKO POSTUETAN IBILI DA**

Beraz, Aramotz mendi lasterketan lidertza defendatu zuen. Proba "nahiko gogorra" izan zela esan du, "batez ere hezetasunagaitik", eta hasieran "sufritu" egin zuela. "Gerora egoerari buelta eman nion eta Mestafa Mahfoudegaz [bigarren Urkiola Kopan] batera joan nintzen. Baina azken jaitsieran oso nekatuta nindoan eta neure onena emanda heldu nintzen helmugara", adierazi du 23 urteko korrikalariak.

Ander Gerrikaetxebarria zornotzarrak irabazi zuen Aramotz mendi lasterketa. Beraz, etxeko proban nagusitu zen. Aranburuk ere badaki sentipen hori zen den; maiatzean Mallabiko Zazpi Pago mendi lasterketaren lehengo aldia irabazi zuen. "Oso momentu berezia izan zen", adierazi du.



Irazu Aranburu, Urkiola Kopako txapela ipinita.



# Pisu altxatzaileen goi mailako lehia Abadiñon

**PISU ALTXAKETA** Traña-Matienako kiroldegiak puntako pisu altxaketa edo 'powerlifting' txapelketa hartuko du asteburuan. Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko hainbat tokitako kirolariak batuko ditu; tartean, munduko errekorren jabe izandakoak

J.D. ABADIÑO

Durungaldean arrotza den kirol mota bat hobeto ezagutzeko aukera egongo da asteburuan Abadiñon. Traña-Matienako kiroldegiak Raw Barbell Cup izeneko pisu altxaketa edo *powerlifting* txapelketa hartuko du asteburu osoan zehar, Sopelako Raw Barbell elkarteak antolatuta. Bizkaia osoan antolatzen dituzte txapelketak kirola ezagutarazteko, eta oraingoan Abadiñora etorriko dira.

Euskal Herriko pisu altxatzaileak ez ezik, asteburuko hitzorduak Errioxakoak, Burgoskoak, Soriakoak eta Segoviakoak ere batuko ditu. Emakumezko eta gizonezko kirolariak pisuaren arabera banaturiko mailetan lehiatuko dira egun osoan zehar; zapatuan 11:00etatik 13:30era eta 17:15etik 20:30era, eta domekan 11:00etatik 13:30era eta 14:30etik 17:00etara. Sarrera doakoa da.

Pisu altxatzaile batzuk goi mailakoak dira. Antolatzaileen esa-



Powerlifting saio bat. RAW BARBELL

netan, zapatu arratsaldeko jardunaldiak interes berezia du parte hartzaileen maila handiagaitik. Orduan izango da pisurik astuneneko kirolarien txanda. Denen artean, Jaime Santillana nafarraren izena nabarmendu daiteke. 2003an jaiotako gaztea

munduko errekor baten jabe izan da orain gutxi arte: 2021ean, junior adina zuela, 273,5 kilo jaso zituen 93 kilora arteko kategorian, Suedian lehiatu zen Europako txapelketan. Espainiako errekorra oraindik berea da adin eta pisu horretan.



Gorostola, zesta-puntako eskolako umeekin eta udal arduradunekin. ERAMAN

## Omenaldi hunkigarria eta finalerdi emozioanteak

**ZESTA** Iñigo Gorostolak bere ibilbideko azken partidua jokatu zuen astelehenean, eta omendu egin zuten

J.D. DURANGO

Iñigo Gorostola 'Arrieta' durangarrak bere ibilbideko azken partidua jokatu zuen astelehenean, eta omenaldi hunkigarria jaso zuen bere herritarren partetik. Zesta-punta eskolako umeez egindako pasilloagaz eta Ezkurdi Jai Alai bete zuten zaleen txaloen artean irten zen kantxara. Ekimenean askotariko oroigarriak jaso zituen eta Unai Iturriagak bertso bat kantatu zion.

Lekerikagaz bikotea osatuta, Gorostolak galdu egin zuen bere azken partidua, baina berdin-

keta hausteko azken tantoan, oso maila ona emanda.

Ondoren, Jai Alai Leagueko Lauko Finaleko lehenengo finalerdi jokatu zen. Kasu honetan ere emozioa izan zen nagusi. Johan eta Gorka Solozabal anaiak berdinketa hausteko tantoa irabazita sailkatu ziren finalera.

### Asteleheneko jardunaldia

Datorren astelehenean, 19:00etan, bigarren finalerdi jokatu dute: Erkiaga eta Basque Barandikaren eta Lopezen aurka. Finala urriaren 21eko astelehenean izango da.



JOKALDIA

GOTZON GOMEZ BARRENETXEA ERRUGBIA

## Kirolak hesiak bota ditzake

Duela gutxi, partida baten atsedenean, errugbi zale batek galdera hau egin zidan: zergatik futbolekin Ipar Irlandako taldeak eta Irlandako taldeak banaturik jokatzen dute, baina errugbian batera aritzen dira? Hasiere ez nion ezer esan, erantzunik ez nuelako, baina jakin-mina piztu zitzaidan eta ikertzeari ekin nion. Itxuraz sustrai historikoak dituen kontua da. Irish Rugby Football Union (IRFU) 1879an sortu zen, Irlandako banaketa politikoa baino askoz lehenago.

Garai hartan, Irlanda erakunde bakarra zen; hori bai, britainiarren mendean zegoen. Irlanda geroago banatu zuten, batetik Irlandako Errepublika eta bestetik Ipar Irlanda. 1922an Irlandako Estatu Askea sortu zen, geroago 1937an Irlandako Errepublika bihurtu zena. Banaketa politikoa indarrean egon arren, IRFUK bere horretan jarraitu zuen, errugbian Irlandako uharte osoa ordezkatuz, eta talde bakar modura jokatzen jarraitu zuten.

Irlandako uharte lau probintzietan banatuta dago: Ulster, Munster, Connacht eta Leinster. Eta azken urteetan Europako errugbiko txapelketa nagusietan toki nabarmena lortu dute, batez ere Leinsterrek eta Munsterrek.

Irlanda biak ordezkatzen dituen taldeak bandera propioa du, Lau Probintzietako Bandera izenekoa, hirusta erdian eta honen inguruan uharteko lau probintzia historikoen armak dituena: Connacht, Leinster, Munster (Irlandakoak) eta Ulster (Erresuma Batukoa eta Errepublikakoa). Bakarrik partidak Dublinean jokatzen direnean bandera horren ondoren Irlandako Errepublikakoa jartzen dute. Lau probintzietako ordezkariek daude taldean, eta zaleek gogotsu animatzen dituzte jokalariek guztiak, edo behintzat hori izan da nire esperientzia taldea jokatzen ikusi dudak bakoitzean.

Ereserkiei dagokienez, 1995a baino lehen, talde honen nazioarteko partidak txandaka jokatzen zirenean,

Belfast eta Dublinean artean, *God Save the Queen* britainiarra (Jainkoak Erregina Salba dezala) Belfasten entzuten zen partiduen aurretik, eta irlandarra, *Amhrán na bhFiann* (Soldaduaeren abestia) Dublinean. Atzerriko partidetan, ez zen ereserkerik jotzen.

1995etik, eta arazo horri konponbidea emateko, Irlandako Errugbi Batasunak ereserki bat sortzea proposatu zuen, Irlandako Errepublikatik kanpoko topaketetan erabil zitekeena, *Ireland's Call* (Irlandaren Deia), Dublinean ere erabiltzen ari dena *Amhrán na bhFiann* ereserki nazionalaren ondoren. Ereserki bere erabiltzen hasiak dira batera jokatzen duten beste kirol batzuetan; besteak beste, cricket kirol ezagunean.

Irlandako kasuaz gain, oso ezaguna da Nelson Mandelak Hegoafrikan apartheid amaitzeko gidatu zuen adiskidetzeko prozesuan errugbiak izan zuen berebiziko eragina. Hurrengo batean, xehetasun handiagoz konstatuko dugu istorio hunkigarri hau.



## ARAMOTZ MENDI LASTERKETA



Nora Narbaiza, June Villarroel eta Itsasne Urkiaga, emakumezkoen podiumean. LUCIA MERUELO

# Aramotz mendi lasterketa eta Anboto Kilometro Bertikala iruditan

Zapatuan, Anbotoko hormetan gora jokaturiko lasterketan Iñigo Alzola eta Onditz Iturbe korrikalariak nagusitu ziren. Domekan, June Villarroel elorriarrak eta Ander Gerrikaetxebarria zornotzarrak irabazi zuten Zornotzako Aramotz mendi lasterketa

**M.Z. / J.D. ATXONDO / ZORNOTZA**

Joan zen asteburuak mendi lasterkarien grina asetzeko moduko hitzordu bi izan zituen Durangaldean. Zapatuan Anboto Kilometro Bertikala jokatu zen. Ia 180 korrikalarik parte hartu zuten Arrazolatik Anbotoko tontorreraino egiten den lasterketan. Begien parean, eta oinpean, honako erronka hau izan zuten aurretik: 3,8 kilometro eta 1.092 metroko desnibel positiboa. Emakumezkoetan Onditz Iturbe izan zen nagusi, Oihana Azkorbebeitia abadiñarra sailkatu zen bigarren, eta Veronica Sanche-

zek eskuratu zuen podiumeko hirugarren postua. Gizonezkoetan, Iñigo Alzola izan zen nagusi. Aitor Ajuria otxandiarra sailkatu zen bigarren, eta Guillermo Ramos hirugarren.

Bestalde, domekan, Aramotz mendi lasterketaren hamabigarren edizioan, 146 mendi korri-

**ANBOTO KILOMETRO BERTIKALEAN IA 180 KORRIKALARIK PARTE HARTU ZUTEN. ARAMOTZEN, 146K**


kalarik hartu zituzten Zornotzako kaleak eta mendiak. Korrikalariak Zubiondon hasi eta amaitu zuten lasterketa, bidean probari izena ematen dion mendilerro ingurua eta 22 kilometro eginda. Pagozelai, Urtemondo eta Belatxikieta zeharkatu zituzten, besteak beste. Gizonetan, Ander Gerrikaetxebarria zornotzarra gailendu zen, Mestafa Mahfoud helmugaratu zen bigarren, eta Josu Caño hirugarren. Emakumeetan, June Villarroelek irabazi zuen, Nora Narbaizak egin zuen bigarren, eta Itsasne Urkiagak hirugarren.



Esfortzu fisikoaren ondoren, irribarrea nagusitu zen korrikalarien artean. L.C.



Helmugara elkarregaz. L.C.



Amaitzearen poza. L.C.



Lagunartea norgehiagokaren gaineratik egon zen. LUCIA MERUELO



Mestafa Mahfoud, Ander Gerrikaetxebarria eta Josu Caño, podiumean. L.C.



ANBOTO KILOMETRO BERTIKALA



Lasterkariak Zabaletan gora. MAIALEN ZUAZUBISKAR



Jaione Gezala Ozaeta. MAIALEN ZUAZUBISKAR



Jose Antonio Salgado Mangas. M.Z.




Osertz Lauzirika Urriolabeitia. MAIALEN ZUAZUBISKAR




Eneritz Basurko Pagoaga. M.Z.



Eneritz Karasatorre Araña. MAIALEN ZUAZUBISKAR



Aritz Unamuno Garai. M.Z.



Veronica Sanchez Romero. M.Z.



Argoitz Lauzirika Arroitauregi. M.Z.



Korrikalariak Zabaletan gora. M.Z.



## GUARDIAKO BOTIKAK

**URRIAK 11**

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**URRIAK 12**

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**URRIAK 13**

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**URRIAK 14**

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**URRIAK 15**

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

**URRIAK 16**

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

**URRIAK 17**

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza


## ZORION AGURRAK



**GOZATU GOZOTEGIA**  
 Ermodo, 11 DURANGO  
 Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00  
 gozatudurango@gmail.com  
 f Gozatu Gozotegia  
 gozatugozotegia

**Zuhaitz**

Urriaren 6an, 6 urte. Zorionak, Zuhaitz! Mosu handi-handiak etxeko danon partez! Asko maite zaitugu!

**EIBAR**

**Oier**  
 Urriaren 12an, 2 urte. Urrixen 12xen gure Oierrek urtetxu bi eingoituz, zorixonak etxeko danon partez!

**ABADIÑO****Laia Serrano**

Urriaren 8an, 10 urte. Zorionak, Laia! Besarkada handi bat! Asko maite zaitugu!

**Oier eta Aretx**

Urriaren 11n, 11 urte. Zorionak, Oier eta Aretx. 11n 11. Hamaika bizipen geratzen jakuz aurretik. Mosu haundi bana. Maitte zaituet.

## Urte askotarako!

**Zorionak Libe** (993.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.  
 Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etorri zaituz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

## EGURALDIAREN IRAGARPENA

## EUSKAL HERRIA




## DURANGALDEA

## Zapatua, 12



## Domeka, 13



**AgroPaper®**  
 NEKAZARITZA  
 JASANGARRI BATERAKO  
 NEGUTEGIA



 Smurfit Westrock





**ETXEDREAMS, historia duen izena**

-  Zure produktuak kosturik gabe entregatu eta jartzen ditugu.
-  Aukeratu gehien gustatzen zaizun ordainketa-metodoa
-  Zure ohe zaharra kendu eta birziklatzen dugu
-  Doako finantzaketa TAE % 0 komisorik gabe
-  Etxeko aholkularitza eta "hitzordua" jartzeko aukera.

**Koltxonetak - Kanapeak - Oinarriak - Oheburuak - Burkoak - Osagarriak**

## 1985. urtetik AMETSAK SORTZEN

*"Atsedena profesionalen esku utzi behar delako"*



## OHE ARTIKULATUETAN ESPEZIALISTAK

*"Atsedena ona izatea da garrantzitsuena"*





LAU-HORTZA

KAROLINA SUAREZ

## Jota

Pantxike jota dago eta Patxikotxuk badaki. Hau ez diot nik; Durangoko Udalak jaien egitaraua denon etxeetara bidali du eta argi ikus daiteke hor. Lur jota. Erabat gairidituta. Sokamuturrik ez, zezen suhar gainean doa; ero. Hain dugu zorigaiztoko andre, non txupina haren kontra zuzendu den. Aspaldi konturatu da Patxikotxu koitadua; hanka egin du txapela ere erortzeke duela. Berarekin opila eta sapuerri-tarra. Banekien nik tronperri-tar sen handiagoa zuela Pantxikek; hereje maitagarri halakoa! Mila txupin haren kontra zuzenduta ere topatuko luke modua San Fausto jai kutunak dantzatu, abestu eta aldarrikatzeko. Jarraitzen dut aurtengo jaietako kartelari begira eta konturatu naiz askotan naizela Pantxike. Leher eginda. Eta zenbat garen; zenbat Pantxike ezagutzen ditudan.

Gauzak nahasten nabil honezkerok, baina, Pantxike pozik ez dagoela jakin dut; eta, ez al da afixa egoeraren metafora aparta? Tira, jaiak heltzeko nagiaz egonda festen azken apurra ere miazkatzea gustuko duen Pantxike banaiz. Ordea, izerdiz, haserrez eta etsipenez herriari zor zaizkion hamaika Pantxikeri esker lehertu da gaur festa. Arduraz, gozamenaz eta alegrantziaz guztion zaintzaile direnak. Txupinak festa baino ez beza piztu, osasuna eta maitasuna!

AKUILUA

# "Vespa ez da azkarra, baina bere xarma du"

AITOR RODRIGUEZ ESTEPA 'RORRO' MOTO KLASIKO ZALEA

Scooter motorra hartuta, Rodriguezek txangoak egiten ditu, bakarrik zein taldean; Madrilen egon berri da eta uztailen ez du hutsik egiten Mondrally topaketetan



Aritz Maldonado ATXONDO

Madrilen Scooter moto klasikoen topaketa batean parte hartzetik heldu berritan berba egin du ANBOTOk Aitor Rodriguez 'Rorro' (Atxondo, 1988) motozaleagaz. Moto klasikoez gozatzeaz gainera, biniloekiko eta reggae

eta ska doinuekiko zaletasuna partekatzen dute topaketan, besteak beste.

**Nondik datorkizu motoekiko zaletasuna?**

Motoak txikitatik gustatu izan zaizkit; klasikoak, adibidez: Vespa eta Lambretta. 22 urteagaz

Vespa bat erosi guran nenbilen, baina kostatu zitzaidan, eskaria handia zelako. Azkenean lortu nuen bat, Vespa pk 75 xl bat. Donostiara joan nintzen erostera, eta handik furgonetan ekarri nuen. Vespa ez da moto azkarra, frenatzea kostatzen zaio, baina bere xarma du. Elegantea da, eta *baziloia*, aldi berean. Lehen-gauzak gustu gehiagoz egiten zirela esango nuke, eta kalitatez ere hobeak ziren.

**Moto beragaz jarraitzen duzu?**

Ez. Moto hori saldu egin nuen, pena handiz. Urte batzuk egin nituen beragaz, baina txiki geratu zitzaidan. Iragarkia ipini nuen egun berean saldu nuen; madrildar batek erosi zidan. Gero, Vespa sprint 150 bat hartu nuen, 1966koa. Halakoak gizatzeo, baimen berezia behar da, eta eskaria txikiagoa da, beraz.

**Noiz hasi zinen topaketetan parte hartzen?**

Ezagun batzuek motoa zuten, eta banekien asteburuetan-eta irteerak egiten zituztela elkarregaz. Arrasaten elkarte sortu zuten orain urte batzuk, eta Mondrally topaketa antolatzen hasi ziren. Musika mundutik ezagutzen nituen batzuk, eta

hara joaten hasi nintzen. Bakarrik joatea ondo dago, baina jendeagaz joatea hobea da: ibilbide luzeagoak egin ditzakezu, otorduak partekatu ditzakezu... Euskal Herrian aldats mordoa dago, eta moto zaharragaz aurrera egin ezinda geratzen nintzen; horregaitik erabaki nuen aldatzea. Hemen, alde batera Kanpanzar dugu, eta bestera Urkiola; beraz, moto aldaketa ondo etorri zait (barrez). Moto handiagaz kotxeen pare joan naiteke, indarra du eta menda-teetan ere ondo erantzuten du. Hamar orduko bidaiak egin dituzten lagunak ditut, adibidez. Gehiago edo gutxiago kostata, baina heldu heltzen gara. Oinarriko motoak dira; motorra dute, balaztak, argia eta txirrina. Egia esan, ez dute gehiago behar.

**Zein izaten da plana?**

Normalean, heldu eta gune berean aparkatzen ditugu motoak. Erakusketa moduko bat ere egiten dugu horrela; izan ere, elkarren ondoan ipinita, dozenaka moto klasiko deigarri egiten dira. Aspaldiko ezagunak eta jende berria ezagutzeko aukera ona da, bai inguruetakoa eta baita beste erkidego batzuetakoa ere. Elkarregaz ibilbide bat egin, eta gero bazkaltzera joaten gara. Aukera bikaina da afizioa elkarregaz partekatzeko; jende jatorra dago, afizio bera duguna, eta asko ikasten dugu elkarrengandik.

**Askok biniloekiko zaletasuna ere partekatzen duzue.**

Kaskamotz, reggae edo mod kulturetan, moto hauek ohikoak dira, eta baita biniloak ere. Beraz, topaketetan zaletasun horiek ere batzen dira, eta pintxadak eta kontzertuak ere egoten dira.



## HEGAN RENT

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela  
48269 Mallabia (Bizkaia)  
Tel.: 943 171 362



administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

## Furgoneta alokairu zerbitzu berria!

